



ARGIA

**Pasaiko Segada,
1984ko martxoak 22**

Espainiako Poliziak Komando
Autonomoetako lau kide hil zituen
odol hotzean. 113 tiro zituzten.

22-29. orrialdeak



**“Guri babesa ez emateko,
beti du aitzakiaren bat Jaurlaritzak”**

PELLO AIZPURU

DIONISIO AIZPURU ZENAREN ANAIA

2.818 | 2023/03/26 | 4,00 €



**Aktibistak
kriminalizatze
kategoria**

12 | VINCENTO VECCHI AUZIA



**“Ezin dira biktimak
kategorizatu: mina
ezin da konparatu”**

30 | GERVASIO SÁNCHEZ



LARRUN #283
Iñaki Iurrebasorekin
elkarrizketa

GEURE GELATIK

LIBURU AZOKA 2023

MARTXOAK 24-25 • ELKARGUNEKO HERRIKO PLAZAN

GOIZEZ: 10:00etatik 12:00etara. ARRATSALDEZ, 17:00etatik 20:00etara.

EGITARAUA

Martxoak 24, ostirala:

- 17:00etan irekiera. Mariasun Landaren ibilbideari aitortza, Arantxa Urretabizkaik aurkeztuta.
- 17:30. Mariasun Landaren Annie Ernauxi (2022ko Nobel saritua) buruzko hitzaldia.
- 18:30. Umeentzako "Dorotea" (Pamiela) album ilustratuaren ipuin kontaketa / collage tailerra, Amaia Egidazurekin.


Martxoak 25, larunbata:

- 10:00. "Petare" (Emagin Txalaparta). Leire Iburguren egileak Miren Egiguren protagonista elkarrizketatuko du
- 11:00. "Natura Gure Esku" (Alberdania) Aiora Zabala Aizpuru. Aurkezlea Naiara Elortza.
- 12:00. "M ama eme ume" (Elkar) Erika Lagoma eta Estitxu Fernandez. Aurkezlea Josune Herrarte.

- 17:00. Mahai inguru: "Gazteentzako literatura", Jasone Osoro eta Alaine Agirrerekin. Bideratzailea: Xabier Mendiguren.
- 18:00. "Ibilbidea" (Tz Testu Zaharrak), Egeriaren liburuaren aurkezpena, Maite Lopez Las Heras itzultzailearekin. Aurkezlea: Julen Garate.
- 19:00. Emakumeek idatzitako testuen irakurketa, 20 lagun ahotsetan.
- 20:00. Azokako partaideentzat (irakurle, idazle, saltzaile...) mokadutxo.

Salmenta postuak:

Amaitz, Hizki eta Lujan.



"Egiten dugun orok du nolabaiteko eragina,
norberak erabaki behar du zer eragin nahi duen" (Jane Goodall).

Antolatzailea:



Babesleak:



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 17 | ANA MENDIA
- 18 | SONIA GONZALEZ
- 19 | ITZIAR MORENO
- 19 | ARANTZA GUTIERREZ
- 20 | BEÑAT MUGURUZA
- 21 | AITOR MONTES

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | BIZI BARATZEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
MAITANE AZPIROZ
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


GERVASIO SÁNCHEZ

30 | GERRAKO FOTOKAZETARITZA

Gervasio Sánchez ibilbide luzeko gerrako fotokazetaria elkarrizketatu du Gorka Peñarikano, Bilbon erakusketa jarria baitu. Gurean egindako armek eragiten dituzten biktimei aurpegia jartzen die. Gerrak ofizialki bukatzen badira ere, gerraren ondorioek pertsona askoren kasuan bizitza osoa irauten dutela oroitarazi digu, eta biktima horiek "ikusezinak" direla, "ezeren gainetik".

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Aktibistak kriminalizatzea da justiziaren jolas berria European

Urko Apaolaza

22 | PERTSONAIA | PELLO AIZPURI

"Biktimekiko instituzioek ez dute berdintasunez jokatzeko"

Miel A. Elustondo

36 | INGURUMENA

Ibai hegalaria, munduko klimaren protagonista

Daniel Hofnung / Reporterre

42 | KULTURA | LITERATURA

Bakardadearen ispilu eta bakardaderako sostengu

Ainhoa Aldazabal

44 | KULTURA | "NOSFERATU"-K 100 URTE

Bertze munduko haize hormatua

Santi Leone


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

 Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñarikano, Irati Irazusta,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Leire Rodríguez, Mikel García,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure
egileta aitortu eta baldintza beretan
eginez gero. Are gehiago, gure edukiak
ahalik eta gehien zabaltea nahi dugun.

 Lizentzia hau soilik ARGIAren
edukientzat da baliagarria,
baliteke beste testu eta argazki
batzuek lizentzia hau ez izatea.



Politika omen

Euskal Herria okupatzen duten bi estatuetako metropolietan politika instituzionalaren aurpeirik gordinena erakutsi digute egunotan. Madrilan, Espainiako "ezkerreko" Gobernuak, bere hitza jan du eta ez dute Mozal Legea indargabetuko. Oposizioan zeudenean, PSOE zein Podemosen aldarri nagusietakoa zen; orain agintean egonik ere, "ezkerrak" ez du PPren gehiengo absolutuaren ondoriorik gordinena ezabatu. Pirinioen bestaldean, kalean ezezik parlamentuan ere pentsioen erreforma ezingo zuela gobernuak aurrera atera, Emmanuel Macronek zer egingo eta indarrez ezarri du, 49.3 artikulua baliatuta. Macron presidente izan da bitan, Fronte Nazionaleko ultraeskuindarren alternatiba gisa. Baina, esaerak dioen bezala, horrelako lagunekin, zertarako etsaiak?

Brebetako zientzietako azterketa euskaraz egin ahal izango dute aurten Seaskako ikasleek

IRATI IRAZUSTA JAUREGI

Seaskako ikasleek euskaraz egin ahal izango dute Brebetako zientzietako azterketa aurten. Joan den asteburuan eman du aditzera erabakia Vincent Bru Frantziako Asanblada Nazionalako diputatuak Twitterren, eta Pap Ndiaye Hezkuntza ministroaren erabakia txalotu du.

Peio Jorajuria Seaskako lehendakariak adierazi du "izugarrizko garai-pena" dela, eta azken urteetako mobilizazioen lorpena dela aldaketa. Sare sozialen bitartez jaso du berria Seaskako lehendakariak ere, eta adierazi du "onartezina" dela modu horretan izatea erabakiaren berri.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa amaitu ondoren egiten den proba da brebeta, hurrengo ziklora pasatzeko ikasle guztiek egiten dutena. Aurten ekainaren 26 eta 27an izango da, eta Seaskako 270 ikaslek egingo dute.

Euskararen Erakunde Publikoko (EEP) ordezkariak, Ipar Euskal Herriko parlamentariak eta Frantziako Hezkuntza Ministerioko ordezkariak bildu ziren irailean, eta mahai gainean jarri zuten brebeta euskaraz egiteko aukera. Ministerioko ordezkariak esan zieten "arraozizko epeetan" erantzungo zietela. Otsailean, oraindik Hezkuntza Ministerioaren erantzunik ez zela ikusita, Seaskako guraso eta langileek Bordeleko errektoretza blokeatu zuten, azterketak euskaraz lelopean.

Seaskak borrokan jarraitzeko asmoa adierazi du "baxoa ere euskaraz izan arte"

BAXOA, ORAINGOZ FRANTSESEZ

Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa amaitzean baxoa egiten dute Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako ikasleek, unibertsitateko ikasketak egin ahal izateko. Gaur egun ez dago baxoa euskaraz egiteko aukerarik, 2017ra arte ikasleek Matematika eta Historia-Geografia euskaraz egiten bazituzten ere. Aurten, Seaskako 120 ikaslek egingo dute azterketa hori, baina ez dago probaren hizkuntzaren inguruko berririk. Seaskak borrokan jarraitzeko asmoa adierazi du "baxoa ere euskaraz izan arte". Hala, elkarretaratzea egin dute martxoaren 20an Etxepare lizeoan.

Luze da Seaskako irakasle, ikasle eta gurasoek borroka hasi zutela, baxoa eta brebeta azterketak osorik euskaraz egin daitezken. Okupazioak, desobedientziak, giza-kateak, petizioak... izan dira tartean eta gaiaz idatzi zuen Leire Artolak gurean: gero eta ikasle gehiago dituzte Seaskako ama eskolek, kolegioek eta lizeoek; Ipar Euskal Herriak euskalduntzen segitzen duen seinale. Aitzitik, gero eta oztopo gehiago jartzen dizkiete ikasketak euskaraz burutzeko. Horren aurrean mobilizazio erraldoiak egin dituzte, eta Bordeleko errektoretzari ere zuzendu zaizkie ikasle, irakasle zein gurasoak, "injustizia" hori aldatzeko eskatzeko. 1990eko hamarkadan ere mobilizazio indartsuak izan ziren Ipar Euskal Herrian, azterketak euskaraz egin zitezken exijitzeko. Eta lortu zuten: 1994. urtetik euskaraz egin eta zuzentzen dira matematika eta geografia-historiako azterketak. Garai hartako 3. mailako kolegioko ikasleek ezin izan zuten diploma eskuratu, azterketa euskaraz egin zutelako, euren hizkuntzan. Azken urteetan, ikasleek ez dute horrekin kezkatu beharrik, notaren zati txiki bat ordezkatzeko duelako zientziako azterketak: "Badakite nota txar bat ukanen dutela zientzietako azterketan, baina, hala ere, asaldatuak dira zeren eta ez dute hori merezi". ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Ez dakit



UXUE APAOLAZA LARREA

Gauza oinarritzkoak ez dakizkit. Garbigailua itsuan jartzen dut; berez, ez dakit zein programa komeni zaidan. Ez nago ziur berogailuaren termostatoak etxeko tenperatura ondo antzematen duen. Ez dakit nire etxean zein zomorro dauden. Ez ditut ikusten. Batzuetan ez dakit nire txakurraren begi eta mugimenduek zer esan nahi duten. Ez dakit gauzak izozkailuan zenbat denbora eduki daitezkeen. Ez dakit banketxeko app-a erabiltzen. Batzuetan ez dakit hitz sinpleenek zer esan nahi duten.

Ez dakit berez ulertu dizudan. Ez dakit nire semearen burutik zer pasatzen den. Ondo dagoela sinesten dut, baina ezin dut jakin. Ez dakit badakien esaten. Ez dakit maitasuna zer den, eta, hala ere, badakit gutxienez bost pertsona maite ditudala. Berez, gehienak, ez dakit nor zaretan ere. Ez nekizkien hainbeste gauza jakin ditut. Eta ez nekien ez nekizkienik.

Ez dakit gaixotasun isilen bat dudan. Duzuen. Ez dakit oihuka ari zaidan minen bat zaunkalaria izateaz gain, espero baino hozka handiagoa egiten ari zaidan. Ez dakit istripu bat izango dudan. Izango duzuen.

Ez dakit nigan zerbaite finkorik baden, ez dakit zerbaite hori zer den, nolakoa den, beraz, ez dakit banaizen zerbaite, iraunkorra behar badu izateak. Ez dakit norbaitek badakien nor naizen.

Itotzen ari naiz. Zerura begiratu, eta ez dakit norainokoa den. Zerura begiratu, eta badakit txikia naizela, baina ez dakit zein neurritan. Zerura begiratu, eta... zerbaite sinesteko gogoia ematen du.

Auskalo. Nik zer dakit. Nik esaldiak egiten baino ez dakit. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Eros ahalmena

FACUA kontsumitzaileen elkarteak mila elikagai baino gehiagoren prezioak aztertu ditu Espainiako Estatuko zortzi supermerkatu kate handietan. Urtea hasi denetik, oinarritzko hiru elikagaitik bat garestitu egin da Hego Euskal Herriko supermerkatuetan, Espainiako Gobernuak BEZa kendu badu ere.

Kultur plana

Eusko Jaurlaritzak Kultura 2028 Plan Estrategikoa aurkeztu du, 80 orriko dokumentua. Euskarazko sorkuntzaren aldeko interbentzio errealik kasik ez dute jaso bertan. Orain arteko estrategien aurrekontuarekin alderatuta berriz, %15 jaitsiko da 2025era bitartean.

Erretreta

Emmanuel Macron Frantziako Gobernuako presidentek 49.3 artikulua baliatuta dekretuz onartu zuen erretreten erreforma, Asanblea Nazionaleko bozketarik gabe, eta herritarren nahiz diputatuen haserrea areagotu zuen. Bi zentsura mozio eta kalean protesta gehiago eragin ditu.

EKONOMIA

Toledoko itunari kateatuak



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Egin zitekeen erreformarik hobere-na da. Baliteke bai. Horrek ez du erreforma on batean bihurtzen ordea. Neurriei begira jarrita, ez du balio aurreko pentsio erreformekin kendu dugutena berreskuratzeko, ezta gutxiago ere. Hego Euskal Herrian ez da posible izango jubilatzea 67 urte bete arte, eta egiten dugunean pentsioak gaur baino eskasgoak izango dira, pentsioa eskuratzeko baldintzak geroz eta gogorra-goak direlako eta prestazioa kalkulatzeko formulek langilea kaltetzen dutelako. Zer berritasun dago orduan? Trukean, pentsio txikiak hobetuko direla.

Agian irakurketa hau arinegia da. Baliteke bai. Izatekotan, balorazioaren fokua erreformak ekartzen dituen hobekuntza txiki horietan bakarrik jartzea bezain arina. Pentsio txikiak hobetzeari garrantzirik kendu gabe, *baby boom* deritzon belaunaldia jubilatzen den momentuan pentsio sistema publikoaren kostua “neurritzkoa” izateko erreforma hitzartu da. Kontutan izanik belaunaldi hori dela momentu honetan aurrezteko gaitasuna duen ia bakarra, pentsio pribatuen negozioa ez da inolaz ere kaltetuko prestazio txikiak pixka bat hobetuta. Aldiz, urrats bat gehiago da sistema pribatua elikatzeke, horretarako beharrezkoa baita sistema publiko murrizta izatea.

Eta aurrera begira jarrita, zer esan gutxi eman du oraingoz AIREF deritzon erakundearen esku gelditu izana erreforma horren bideragarritasuna neurtzeko eta epaitzeko gaitasuna. Europar Batasunak du azken hitza beraz, eta badakigu honek aspaldi ezarri ziola muga sistema publikoari: Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua aldarazi zuen, udaran, erdi ezkutuan, PSOE eta PPren eskutik. ●

ANALISIA



WIKIPEDIA

Euskararen arriskuez

XABIER LETONA BITERI

Euskara ardatz hartuta hiru zirkuluri begiratuko diet bizileku dudak Iruñean, txikitik handira, eta azken urteetan izandako hainbat pertzepziotan arakaturata. Bat, gertuko inguruari so –etxea, lana, aisia...– euskarak etorkizun oparoa du: besteak beste, gero eta helduleku gehiago eta hobeak ditugu sorkuntza munduan. Gozatzen dugu! Bi, nire ingurune euskaltzale zabalagoari begira, egoera estuagoa da: askok daki euskaraz, gutxiagok egiten du eta, batez ere, erraz lerratzen da gaztelaniara. Euskararentzat arriskuak handiagoak dira hor. Eta hiru, hor dira Iruñea eta Nafarroa. Horietan egoera larria da. Jakina, nire pertzepzioak besterik ez dira, baina era askotako sentipenak sortzen dituzte norbere baitan: liburu bikain batek ematen duen bizipoza, esaterako; edo ka-lean “ui, zein larri gauden!” sentitzea; edo, ezinak jota, Enric Larreularen *Dolor de Llengua*-ren minera hurbiltzea.

Bada, pertzepzio eta sentipen horiek guztiak soziolinguistikaz jantzi dizkit Iñaki Iurrebaso soziolinguistikak ARGIAren zenbaki honekin batera doan LARRU-Nen. Hona haren lanaren datu esanguratsu batzuk: 1906tik 1971ra euskararen transmisioak gainbehera itzela izan zuen, gorakada handia izan zuen 1971tik 2001era, eta harrez gero geldialdian dago, bidegurutzean.

Baina bidegurutze horretan –eta Iurrebasoren konparaketa bati jarraituta– euskararen erabileraren %15arekin askoz gertuago gaude irlandiararen erabileraren %1etik, islandieraren %80tik baino. Euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen garen hiztunak euskal herritarren %7 gara, 195.000 herritar; 222.000 hiztun (%8) bi hizkuntzatan antzera moldatzen dira; eta 2.230.000 (%85) erdaraz hobeto. Horren ondorioz, herritarren arteko elkarriketen %82 gutxienez, derrigorrez erdaraz izan behar dira.

Hala ere, ezin dira gutxietsi gure erabilera datuak, euskaldun asko erdaraz hobeto moldatzen bada ere, euskaraz egitea erabakitzen duelako, eta haien seme-alabei euskara transmititzea. “Euskaltzaletasun sozial sendoa dugu –dio Iurrebasok–, guk geuk ere baloratzen ez dakiguna askotan”.

XX. mende amaieran euskararen gainbehera geldiarazi zuen olatu euskaltzalea horiengan oinarritu zen, eta, ezinbestean, gorakada ere horiengan oinarritu-tuko da. Bakarrik asmatu beharko dute honakoetan: hizkuntzarekin orain arte beste gozatzen; ondoan dituzten 200.000 euskaldunak eguneroko praktikara erakartzen; gainbehera doazen arnaguneei eusten; politikari euskaldun eta euskaltzaleei euskara erdigunean orain arte baino sendoago jarri behar dutela eskatzen; instituzio euskaltzaleei bultzada legala eta materiala konplexu barik areagotu behar dutela aldarrikatzen; eta, eskolaren eta familiarren bultzadarekin azken hamarkadetan handitu dugun euskaldunen multzoa handitzen jarraitzen.

Bai, ados, inork ez zigun esan euskaldun izatea horren nekeza zenik eta hori guztia, baina hori da begien aurrean dugun panorama. Euskal gizarteak eta euskal herritarrek erabakiko dute euskara oroimen bilakatu nahi duten ala ez. ●

10

mediku Osasunbideakoak enpresa pribatuan ari dira, eskusibotasuna kobratu arren. LABek salatu du eta adierazi du praktika txar hori orokortuta dagoela Nafarroako osasun publikoan.

“Arnasguneetan zein udalerrri euskaldunetan, politika ausartak egitea eta euskara nagusituko den eremua indartzea beharrezkoa da”

IRAITZ LAZKANO

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakaria. 100 udalen langa gainditu du UEMAK.

2023-03-15



21

politikari frantziarrek akzioak dituzte TotalEnergies petrolio eta gas multinazionalean, eta horrek eztabaida etiko eta politikoak planteatzen ditu, Mediapart-ek azalerratu duenez. 12 diputatu, 6 senatari eta 3 ministro dira.

“PIRINIOETAKO DESPOPULAZIOA HAREN AURKAKO NEURRIAK BAINO ABIADURA HANDIAGOAN DOA”

Pirinioetako husteari aurre egiteko legea eskatu dute eskualdeko ordezkari Karlos Bueno, Ainara Ekisoain eta Mikel Aoizek, irratian egindako solasaldian.

EUSKALERRIA IRRATIA (2023-03-09)

6.143

indarkeria matxista kasu erregistratu dira 2022an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, gehienak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aldetik jasandakoak.

“Jakinda mediku euskalduna nahi dugula, lasai asko jartzen digute erdalduna”

JOSEBA OTANO

Administrazioan Euskaraz taldeko kidea.

ARGIA.EUS (2023-03-17)



TEKNOLOGIA

Adimen baztertzailea



DIANA FRANCO

Adimen artifizialaz hitz egiten dugunean, “artifizial” adjektiboa lotuta, burura datorkigu gizakiokin eta gizatasunarekin zerikusia ez duen zerbait. Adimen artifiziala gizakiok sortu dugu, eta gizakion beldurrak, gogoak, ideiak... hartzen ditu bere baitan. Horrela, badirudi egun ditugun zenbait adimen artifizialek bazterkeriarako joera handia dutela. Eztabaida hau aspalditik dago gizartean, baina azken hilabeteetan berpiztu da. Arrazoiak, datu biometrikoetan oinarritzen diren adimen artifizialen jokabidea.

Adimen artifizialak datuez elikatzen direla badakigu, eta datuetan emaitzak inplizituki joaten dira adierazita. Herri batean irakurtzen ez dakiten pertsona guztiak kale batean bizi baldin badira, adibidez, kale horretako curriculumak baztertzen ikasi dezake lan aukeraketa optimizatzerara bideratuta dagoen adimen artifizial batek, ikasi egin baitu hor arrakastarako aukera gutxi dagoela. Hala, kale horretako pertsonak beti izango dituzte arazoak lana aurkitzeko, adimen artifizial hori inplementatuta dagoen sistema guztietan.

Datu biometrikoekin berdin gertatzen da. Datu biometriko bat azalaren kolorea da: munduko toki askotan, azal ilunekoa izatea da gizarte desabantailekin lotutako ezaugarri biometrikoa, eta gizarte egoera horretan bizitzan arazo gehiago ematen dira. Gender Shades proiektuko eragileek ikertu dutenez, azal iluneko pertsonen sare sozialetatik heltzen zaizkien edukiak maila sozio kultural baxuago bati loturiko edukiak dira.

Badirudi gizarteetako jokabideak mantentzeko eta eraldatzeko tresna eraginkorra dela adimen artifiziala, beti ere, bera inplementatuta duten sistemak erabiltzen baditugu. Gauza da, beharbada, kontziente izan barik zenbait sistemaren barne bagaudela. ●

NAZIOARTEA



69 orduko lan astea, “malgutasunaren” izenean

AXIER LOPEZ

Erresuma Batuan 61 enpresak hartu dute parte lau laneguneko astea probatzeko proiektu pilotu batean. Behin amaituta, enpresa horien %92k lanaldia murrizten jarraitu nahi du, soldata murriztu gabe. Beste herrialde batzuk ere aztertzen ari dira bide hori.

Baina leku guztietan ez doaz bide horretatik. Hego Koreako Gobernuak asteko lanordu kopurua 69ra igotzeko proposamena egin du. Yoon Suk-yeol eskuindarra buru duen gobernuak bere egin ditu enpresa-taldean nahiak. Enpresariak kexu dira egungo baldintzetan zaila dela “epeak betetzea”, eta produktibitatea sustatu behar dela.

Hego Koreako egungo legeak 40 ordura mugatzen du lan-astea, gehi aparteko 12 ordu gehienez. Halere, sindikatu gehienek salatzen dute langileek presio iraunkorra jasaten dutela denbora gehiago lan egin dezaten. Gobernuaren inkesta baten arabera, 2020an Hego Koreako langileen %40k soilik hartu zituzten urteko opor-egun guztiak.

Eta bitxia bada ere, langile klasearen lan-baldintzak okertzea eskatzeko hitz magiko bera darabilte enpresariak Euskal Herrian eta Korean: malgutasuna.

EMAKUMEEK GEHIAGO LAN EGIN ETA GEHIAGO ZAINTEKO

Hego Koreako Enpresen Federazioak azpimarratu du 62 orduz lan egiteak mesede egungo diola industriaren

“lehiakortasunari”, eta enplegua sortzen lagunduko duela. “Sistema malgu honen bidez, arazo sozial larriak konpon ditzakegu, hala nola biztanleriaren zahartze azkarra eta jaiotza-tasa baxua, eta emakumeek lan-ordutegia modu malguagoan aukeratzea bermatuko dugu”, esan zuen Lee Jung-sik Lan ministroak planaren aurkezpenean. Horren arabera, emakume langileek aparteko ordu gehiago metatu ahal izango lukete, eta trukean ordu libre gehiago hartu “familia-konpromisoei erantzuteko eta pertsonak zaintzeko”. Ezin argiago azaldu du ministroak: emakumeek lan gehiago egin lantokian, etxean ere lan gehiago egiteko aukera izan dezaten. *Win, win*. Confesbasken amets heze korearra.

Koreako Emakumeen Elkarten Batasunak, jakina, ez du enpresaburuek bezala proposamena baloratu: “Gizonek ordu asko egingo dute lan eta ez dute zaintza-ardurarik bere gain hartuko, baina emakumeek lan guztia egin beharko dute”.

Zorionez, gobernuaren proiektuak belaunaldi gazteenen eta sindikatuen erabateko aurkako jarrerarekin egin du topo, eta gobernuak atzera egin behar izan du. Langileen artean sortutako nahigabeak Yoon Suk-yeol presidentea iritiz aldatzera eraman ei du. Eta lehen malgutasuna ikusten zuen lekuan, orain 60 orduetik gorako lan-astea “gehiegizkoa” dela adierazi du. Hori ere malgutasuna, omen. ●

Arrazakeria polizialaz “nazkatuta”

📷 ECUADOR ETXEA

BILBO / Bilboko San Frantzisko auzoan bizi duten Polizia gehiegikeria salatzen elkarretaratzean, zer eta espedienteak ireki ziren Poliziak, salaketa hori iraingarria dela argudiatuta. Uzkurtu ordez, berriz ere kalera atera ziren bizilagunak joan den astean, “sarekada polizial arrazistak, etxe atarian jasandako miaketa umiliagarriak eta bizigarritasun baimena dutenen etxebizitzaren hustuketa ilegalak” salatzen.



Ekonomia

Nafarroako Gobernuak 100 euroko laguntza emango die familiei 3 urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko; 1.200 euroko ordainketa bakarra egingo zaie. Laguntza eskatzeko muga 45.000 eurokoa izango da diru-sarrera bakarra izanez gero, eta 70.000 eurokoa diru-arrera bat baino gehiago izanez gero.

Kontsumoa

Beterri-Buruntzako nekazaritza eta merkataritza modu jasangarrian suspertzeko ekimen aitzindaria aurkeztu dute Hernanin eskualdeko udalek, Karabeleko ekonekazaritza etxaldeak eta Behemendi Landa Garapenerako elkarteak. “Beterri Km0” sarea izango da oinarria.

Euskara

Euskarazko hezkuntzaren aldeko mobilizatorako deia egin dute Gazte Euskaltzaleen Sareak, euskalgintzako hainbat norbanakok eta beste eragile batzuek, “euskararen eta euskaldunen aurkako azken erasoak salatzen”. Martxoaren 23an lau manifestazio deitu dira, Hego Euskal Herriko hiriburuetan.

AKTIBISTAK KRIMINALIZATZEA DA JUSTIZIAREN JOLAS BERRIA EUROAPAN, GALDETU VINCENZO VECCHIRI

Inork oraindik Vincenzo Vecchi zein den ez badaki, has dadila bere izena ikasten. Ez da mende hasierako anti-globalizazio manifestazioetan ibilitako aktibista soila. Hamabi urtetik hona Britainian aterpetua, italiar justiziak estraditatu egin nahi du Mussoliniren garaiko lege batekin ezarritako kondena betetzeko. Protesta eta disidentzia oro kriminalizatzeko eta eskarmentua emateko krudelki pertsegitu duten pertsona bat ere bada Vecchi.

URKO APAOLAZA AVILA

Lyongo apelazio auzitegiak eman-go duen epaiaren zain ari gara lerrook idazten. Martxoaren 24an erabakiko du Vincenzo Vecchi Italiara estraditatu ala ez, jatorriko herrialdean urte askotako zigor gogor bati aurre egin diezaion. Bere delitua? Duela bi hamarkada baino gehiago, anti-globalizazio manifestazio batean parte hartzea. Ez harritu irakurle, Mussoliniren garaiko lege bat gaur egungo errealtatera bihurritzen baduzu, ze kondena nahi duzu ateratzea?

Baina “Vecchi auzian” ez dago pertsona baten etorkizuna soilik jokoan, jurisprudentzia arriskutsua ere ezarri dezake Europar Batasunean. Orain arte nagusi izan den tipifikazio bikoitza hankaz gora jarriko luke: ez litzateke beharrezko

izango ustezko delitua bi herrialdeetako kode penalean agertzea, iheslaria entregatzea eskatu duen epaileak lege faxista eta atzerakoiena ezarriko badio ere. *Vince*-ren aldeko herritar batzordeak adibide zehatz batez azaldu ohi du auziaren larria: zer gertatuko litzateke Polonia-ko justiziak euroagindua emango balu emakume bati abortatzen lagundu dion pertsona baten kontra? Eta espainiar justiziak erreklamatzeko dituen politikari katalanen kasuan zer esan?

Vecchiren kontrako epaiketa duela hilabete egin zen Lyonon, prozesu luze baten ondoren, eta apelazioko abokatu orokor David Aumonier “firme eta segurua” agertu zen aktibista entregatzeko. Baina epaia dena dela ere, segurua den gauza bakarra da defentsak zein akusa-



zioak helegiteak jarriko dituztela, eta eskubide zibilen aldeko borroka garrantzitsu baten negarren geltokia izango dela honakoa. *Rue89* egunkariak bere lerro burutan nabarmendu du Vecchik Lyongo epaimahaikideei esandakoa: “Zuena, epai morala izango da”.

OROITZEN 2001EKO UZTAIL HURA?

Irakurle askok oso gogoan izango du 2001eko uztailean G8aren gailurra zela-eta Genovan antolatutako kontragailurra. Milaka izan ziren hiri hartara joandako manifestariak, tartean Euskal Herriko ez gutxi. Italiako Gobernuak errepresio basatiarekin erantzun zuen garai hartan ernatzen ari zen mugimendu altermundialistaren kontra. Carlo Giuliani ingurumen aktibistak bere bi-

**BREITAINIA**

Urte askotan aterpetu duen herrian lan komunitario eta sozialak egin ditu Vecchik eta ezaguna da oso. Breitanian jende andana mobilizatu da bere alde.

AFP / SALOM-GOMIS

ziarekin ordaindu zuen atrebentzia hura. Eta beste askok ere, euren haragitan sufritu zuten poliziaren basakeria, Diaz eskolan antolatuta zegoen hedabideentzako zentroko sarraskian hortz guztiak galdu zituztenak tarteko. 600 zauritu eta 325 atxilotu. Amnistia Internazionalak salatu zuen “Bigarren Mundu Gerratik Mendebaldeko herrialde batean izandako giza eskubideen eta eskubide demokratikoen urraketa handiena” izan zela.

Giza Eskubideen Europako Epaitegiak 2015ean Italia zigortu zuen gertaera horientatik, baina poliziarik ez zen sekula kartzelara joan, amnistiatuak izan zirelako. Aldiz, manifestazio horretan parte hartu zuten hainbat lagunen kontra, setakeria handiz jokatu du italiar justiziak. Vincenzo Vecchi da horietan azkena.

Giza Eskubideen Europako Epaitegiak Italia zigortu zuen Genovako 2001eko gertakariengatik, baina poliziarik ez zen sekula kartzelara joan

1990eko hamarkadatik Lonbardia-ko antiglobalizazio taldeetan ibilitakoa, Vecchik, beste askok bezala, Genovan egin zuen protesta 2001ean. Horregatik, eta 2006an izandako martxa antifaxista batean izateagatik, hamairu urteko kartzela zigorra ezarri zioten, bera azaltzen zen argazki soil batzuetan oinarrituta.

Horretarako, Benito Mussolini diktadorearen garaitik indarrean dagoen lege fosilizatu bat erabili zuten epaileek, Alfredo Rocco ministro faxistak 1930ean sorturikoa. “Gure kode penala, kode politiko bat da”, esan zuen agintari italiarrak lotsagorritu gabe, Noam Chomsky hizkuntzalariak eta beste hainbat pertsona ezagunek Vecchiren sostengurako egindako idatzian gogorarazi duten moduan. Lege horren arabera, *devastazione*

e saccheggio (“txikizioa eta lapurreta”) gertatu diren eszenatoki batean egotea nahikoa da, pertsona batek zigorrak jasotzeko gertakari horri “babes morala” emateagatik.

Gauzak horrela, 2011n Vecchik hanka egin zuen kartzelara ez joateko. Baina Italiako Gobernuak pazientzia handiz jarraitu du bere arrastoa urtetan, aurkitu duen arte: 2019an Britainiako Rochefort-en-Terren (bretoiez Roc'h-an-Argoed) herrian atxilotu zuten jendarmeez, Sant-Gravezera lanera zioala.

AUZITEGIEK AMEN ESAN ARTEKO BIDEGURUTZEA

Urte guztiotan Vecchi ez da ezkutuan ibili: lan komunitarioak egin izan ditu herrian, bizilagunen etxeak margotzen aritu da, jarduera sozialetan parte hartu du... Bere atxilotzea ez zen oharkabean pasa, eta ez da harrizkoa otsail honetan Lyongo justizia jauregiaren atarian egindako eserialdian, Britainiatik joandako jende andana egotea, Soutien Vincenzo (Babestu Vincenzo) batzordekoen deiarekin bat eginez. Horrez gain, Milandik autobus bete lagun ere joan zen, Genovako G8aren gailurreko errepresaliatuei laguntza legala ematen dien taldeak antolatuta.

Prozesu gorabeheratsuaren kronologia osoa Vecchiren babeserako komitearen webgunean kontsultatu dezake nahi duenak. 2019tik hona kasua Rennes, Angers eta Lyongo apelazio auzitegietatik igaro da, eta aldiro, fiskalak Parisko Ka-

Genovako G8ko kontra-gailurreko errepresioa justifikatzeko errelato oso bat sortu zen. Testuinguru horretan kokatzen du Vecchiren kontrako jazarpen judiziala Italiako Errepresioaren Behategiak

sazio Auzitegian errekurritu ditu euroa-gindua ez onartzeko hauen erabakiak.

2021ean Kasazio Auzitegiak Europar Batasuneko Justizia Auzitegira eraman zuen gaia, eta honek, interpretazio lauso bezain harrigarri bati atea ireki zion: ez dela beharrezkoa bi herrialdeen zuzenbideetan delituak berdin-berdinak izatea pertsona bat entregatua izateko. Eskandalu bat. “Arrazoizkoa al da, hoguei urte geroago inor bere herrialdera itzularaztea Mussoliniren lege batekin ezarritako kondena betetzeko, Frantzian (sic) berme guztiakin integraturik dagoenean?”, galdetu du Vecchiren abokatu Maxime

Tessierrek, erresistentzia gaiak lantzen dituen *La Réleve et la Peste* aldizkarian.

Emilio Quadrellik egindako *Genova 2001, una storia del presente* (“Genova 2001, oraingo historia bat”) idazlanean –Italiako Errepresioaren Behategiak zabaldua–, oso argi ikusten dira G8ko kontra-gailurreko errepresioaren helburuak: “Ezabatu behar zen kapitalismoaren globalizazioarekin eta bere pentsamendu bakarrarekin kritikoa zen edozein”. Eta hori justifikatzeko, errelato oso bat sortu zen manifestarien kontra egiteko. Testuinguru horretan kokatzen dute Vecchiren kontrako ondorengo jazarpen judiziala Italiako Errepresioaren Behategitik. Eta geroztik, munduko eliteek zenbat aldiz erabili ote dute estrategia bera, protesta mugimenduro kriminalizatu eta zapaltzeko?

SEINALATZEA, PERTSEGITZEA, ELIMINATZEA

Goiko galdera horri erantzuna bilatu nahi dionak, irakurri dezake duela gutxi OMAL Latinoamerikako Multinazionalen Behategiak eta Bakea eta Duintasuna erakundeak elkarrekin kaleratu duten *Criminalización del derecho a la protesta: patrones, actores e instrumentos* (“Protesta eskubidearen kriminalizazioa: patroiak, aktoreak eta tresnak”) txostena. Juan Hernández Zubizarreta, Erika González eta Pedro Ramiro dira egileak eta Europako zein Hego Amerikako kasuak aztertu dituzte, Europako



MUSSOLINI diktadore faxistaren garaiko lege bat erabili dute Italian Vincenzo Vecchi (eskuinean) zigortzeko, eta Frantziako egungo kode penalean halakorik ez dagoen arren, estraditatu egin dezakete.



KRIMALIZAZIOAREN DIAGRAMA honekin, protesta soziala indargabetezko erabilitako estrategia zein den azaldu nahi izan dute OMAL eta Duintasuna eta Bakeako kideek.

Parlamentuko Ezkerra taldeak eskatuta.

Azaldu dutenez, protesta sozialaren krimalizazioa “neoliberalismoaren *belle époque*-ren gainbeherarekin batera zabalduz doan fenomeno da”, eta hainbat patroji jarraitzen ditu: botere korporatiboa zalantzan jartzen duten pertsonak eta erakundeak seinalatzea –iritzi publikoari sinetsaraziz herritarren interes orokorraren kontra daudela–; erreprimitea eta pertsegitea; eta azkeneko horrek funtzionatuko ez balu, zuzenean “eliminazio fisikoa”.

Epaia dena dela ere, defentsak eta akusazioak helegiteak jarriko dituzte; eskubide zibilen aldeko borroka garrantzitsu baten enegarren geltokia izango da honakoa

Kriminalizazio prozesu horren aktore nagusia Estatu da, egileek diotenez: estigmatizazioa, judizializazioa, espioitza, mehatxuak, zigor kodeen erreforma, biolentziaren monopolioa... dira ohiko tresnak; baina enpresetako *think tank*-ek eta talde parapolizialek ere laguntzen diote zeregin horretan.

Hainbat adibide ematen dituzte txostenean: Ekuadorko herri indigenen mobilizazioen kontra 2022an abiatutako kanpaina mediatikoan, esaterako, nar-kotrafikoarekin lotu zen mugimendu hura –Peruko egungo protestekin egiten ari diren bezalaxe–. Eta hemendik gertuago, Espainiako Estatuan, oraindik indargabetu gabe dagoen *Mozal Legea* baliatuz Hipotekek Kaltetutako Plataformako kideek jasotako isunak dituzte aipagai: Katalunian bi urtetan ehunka isun jarri dizkiete, 200.000 euroko zorra pilatzeraino, “jadanik oso prekarizaturik dagoen biztanleriaren zati batengan”.

Hau guztia ez da berria, pentsatuko du irakurleak. Euskal Herrian baditugu beste mila adibide, aspaldikoak zein oraintsuagokoak: intsumituak, AHTren kontrako ekintzaileak, disidente politikoak, ikasleak, Biarritzeko G7ko kontra-gailurreko atxilotuak... denak izan dira, gehiago edo gutxiago, estrategia makabro horren jostailu. Baina joera da kezkarriena: “Denak aditzera ematen du etorkizun hurbilean krimalizazio prozesua hedatzen joango dela –diote txostenean–; krisi ekonomiko, ekologiko eta energetikoaren larriagotzeak desberdintasun sozialak handitu eta gatazkak areagotuko baititu. Horren aurrean, elite politiko eta ekonomikoek hesi bat jarri nahi dute egiturazko aldaketak blokeatzeko”. Beraz, Vecchi auzia denon auzia ere bada, denok giltzapetuko gaituen hesia delako. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO **A** 2023

FINALA

MARTXOAK 25

LAUDIO LARUNBATA

12:00 BERTSO- POTEOA

LAUDIO BHI-TIK HASITA

Idatzizko bertso sorta taldeak eta
bat-bateko taldean tabernaz
taberna ariko dira

14:00 BAZKARIA

LAUDIO BHI KIROLDEGIAN

Bazkalostean Intxixv taldea

17:00 3 TALDEEN ARTEKO FINALA

LAUDIO BHI KIROLDEGIAN



IZENA
PENTSAU BIDA
(ARAMAIO)



ERREXALA
(GASTEIZ)



KATUKO MUINOAK
(GASTEIZ)

www.bertsozale.eus/araba

Babesle nagusiak

araba álava
foru aldundia diputación foral

Vital
FUNDACIÓN - FUNDAZION

LABORAL
KUEKO

udapa
FACIL

artepan

ARGIA



Hurren arte

Dagoeneko bost urte pasatxo igaro dira ARGIAN kolaboratzeko proposamena jaso nuenetik. Akordatzen naiz, artean nirea ere bazen gurasoen etxean nintzela e-maila irakurri nuenean. Urduri jarri nintzen. Segundo erdia behar izan nuen erantzuna pentsatzeko, baina denbora hartu nuen bueltako mezua batere akatsik gabe idazteko. Behin eta berriro erreparatu nuen bidali aurretik, eta zalantza egin nuen ARGIAN argitaratzeko moduko maila izango ote nuen. Ardurak harripatu ninduen. Txukun egin nahi nituen gauzak.

Orditik hona, gustura jardun dut hiruzpalau hilabetez behin eskribitzen. Saiatu naiz patxadaz eta mimoz lan egiten. Aske mugitu ditut behatzak teklatuan zehar; “3.400 karaktere espazioak barne”, horixe izan dut muga bakarra. Ugalezintasuna, haurdunaldia, erditzea, dolu perinatala, puerperioa, edoskitzea, hilekoa, sexualitatea... Egia esan, harro nago horrelako gaiei tartetxo bat eman izanaz. Alabaina, kantak dioen moduan, ezer ez da betiko. Eta honaino heldu naiz. Asko kostata hartu dut erabakia: hauexek dira ARGIAN idatziko ditudan azken letrak.

2023. urtea asmo potoloz bete dut. Leiho handiak ireki ditut parez pare, eta beldur naiz korrontearen ostikoa gehiegizkoa izango ote den. Horregatik erabaki dut aurretik zabalduetako zenbait leiho ixteko unea heldu dela. Haize boladaren esku uztea baino, nahiago

Ugalezintasuna,
haurdunaldia,
erditzea, dolu
perinatala, puerperioa,
edoskitzea, hilekoa,
sexualitatea...
Harro nago horrelako
gaiei tartetxo bat
eman izanaz

baitut hautua neronek egin. Emeki egin nahi dut, ezer puskatu aurretik.

Tira, erdi damutzen hasia naiz jada, eta inguru-minguru ibili baino, hobe dut harira jo. Hauxe dut agur-testua. Literatura gutxi, oraingoan. Zuzen eta soil. Esker hitzez bete nahi ditut lerro hauek. Horixe besterik ez.

Mila esker, ARGIA, nire aldeko apustua egin izanagatik. Mila esker zuen etxean horren jator hartu izanagatik. Mundiala izan da tarteka-tarteka idazteko denbora hartu behar izana. Aitor-tzen dut tristeza dela, baina derrigortasunak eman dit abagunea. Entrega-data bat; aitzakiarik ez, beraz. Neurri batean izan da nolabaiteko auto-zainketa. Gustuz egiten denari agendan tokia topatu behar izatearen paradoxa.

Mila esker nire artikuluren bat irakurtzeko astia hartu duzuen gutztoi; orain-



ANA MENDIA
EMAGINA

dik ere oso arraroa egiten zait ezagutzen ez ditudan irakurleak badirela pentsatzea. Eta, noski, bihotz-bihotzez eskerrik asko sekula hutsik egin ez duzuen lagun, familia-kide eta lankideoi. Luxuzko *fans*-ak zarete. Asko maite zaituztet.

Mila esker, uniformea soinean, nirekin topo egin duzuen emakume eta familiei. Nire ofizioari zentzua ematen diozue, eta hortik idatzi dut gehien-gehienetan. Zuetatik abiatu naiz ia letra guztietan. Zuek piztu dizkidazue burutazioak. Zuei zor dizkizuet hausnarketak.


Azken eskerra izan ohi da berezi-ena. Eta zuretzat doa, Aitor; idatzi dudan guztiak izan baitu zuretik ia niretik bezainbeste. Arretaz irakurri dituzu artikulu den-denak. Gordin egin didazu kritika. Zorrotz bezain maitekor lagundu didazu. Mila esker aldamenen egozteagatik. Nire musa. Politza izan da zure alboan sortzea. Are politagoa pentsatzea, orain, sabel barruan daramadala elkarrekin sortu berri duguna. Datorrena datorrela, horri eskainiko diogu aurrerantzean ahal bezainbeste patxada eta mimo.

Seguru zer idatzia izango dudala hemendik aurrera. Eta segituko dut idazten. Horixe baita ahaztu nahi ez dudana betiko gordetzeko topatu dudana modua. Beste batzuek argazkiak ateratzen dituzten gisan idazten dut nik. Izango da hurrengoren bat, beraz. Ze, leihoa itxi bai, baina ondo gorde dut giltza, badaezpada. Izango da noiz eta non. Hurren arte. ●

Kolektiboa



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Autobusean, denak andrak, nirekin batera etorri diren guztiak, andrak eta etorkinak". Ondo daki nire lagunak, nik bezala, halaxe mugitzen gare-lako, emakumeok, migranteek eta jende nagusiak erabiltzen dugula, nagusiki, garraio kolektiboa. Orain arte, behintzat.

Kolektibo. Gero eta gutxiago erabiltzen den terminoa. Ez dut "publiko" esan, azken batez, publiko-pribatu asmakizun ustiatzailearen menpekoo delako garraioa. Ondo dakite zein den desberdintasuna greban dabilzan Bizkaibuseko langileek.

Ukrainagatik dela diote, horretaz ere luze egin genezake berba, baina kontua da garraioaren prezioa merketu dela azken sasoiari. Fenomeno berri bat ekarri du horrek: erabiltzen ez zuten hainbatek ezagutu dute zer den beste batzuekin batera bidaiatzea. Eta, horra hor sorpresa, norbera moldatu beharra.

Ospitalera bidaiak luzeak dira, bai. Oso. Kotxez ordu erdiz egiten den bidaiarako, autobusez ia ordu bete behar. Zerbitzua hobetu behar dela? Zalantzarik ez. Hainbat bide daude horretarako. Baina ez da ganorazkoa norberarentzako bidaiak zuzenak eskatzea, beste herri batzuetako jendeaz arduratu gabe. Min eman zidan, benetan, autobusak Lekei-

tiotik ospitaletara egiten duen ibilbideari "ibilbide turistikoa" deitzen zitzaioala irakurtzeak. Nork eta herri *turistikoa* bateko biztanle batek idatzita. Ea, Ispaster, Elantxobe eta hainbat herri eta auzotako jendea postal batean bizi eta gaixotuko ez balitz bezala.

Bien bitartean, Ondarroako batzuek nahi dute Markinakoek errepide orokorrean itxarotea, trafiko eta euri artean, bost-hamar minutu ez "galtzeko" herri barrura sartzen. Mundial egon zen egunkarian ironikoki erantzun zion andrea, hamar minutu aurreratzeko, hobe zela eskaera egin zuenaren herrian, hiru geltokiren orde, bakarra izango balute.

Denbora faltaz kexu bizi gara. Baina, zertarako nahi dugu ditzosozko denbora hori? Enpresari oparitzeko? Hamar minutu geuretzako erregalua izan litezke, irakurtzeko, hausnartzeko, geure baitan biltzeko. Hala ere, jendeak ez omen daki bere buruarekin egoten, *Science* aldizkarian argitaratutako esperimenduak azaldu bezala: lagineko gizonezkoen %67k eta emakumezkoen %25ek, 15 minutu pasaturik, nahiago izan zuten deskarga elektrikoak jaso, beren buruarekin egonean egon baino.

Garraio kolektiboa erabiltzeak bizitza beste modu batez hartzera darama, be-

rez. Puntualitatea irabazteaz gain, gauza asko ikasten dira: denboraren kudeaketa ezberdina egiten, egun osoa bes-tela antolatzen, itxaroten eta denbora ematen (geuretzako denbora hartzen!). Eta ikaskizun inportanteena: zerbitzu hori ez dela gure premia puntaletarako. Gure premiak asetzeko da, oro har, baina beste guztienak ere bai, Zengotita puntako atso zahar bakar batenak badira ere.

Laster batean gutako askok ezin izango dugu kotxerik eduki, garraio kolektiboan mugitu beharko gara derri-gor (hobe garraio benetan publikoan egingo bagenu). Horretan ere utzikieriaz dabilta gobernu eta administrazioak, zerbitzua hobetu eta zabaldu orde, ezertarako balioko ez digun AHT mada-rikatuarekin entretenituta, herritarrok horren kostata irabazten dugun dirua lagunekin xahutzen.

Bai, zenbaitetan zerbitzu zuzenak ere beharko dira (eta, akaso, lantzaderak ere bai). Baina hobe geu ere hasten bagara ulertzen kolektibotasunak, ezer baino lehen, kolektiboan pentsatzea dakarrela. Bidea ez da nork bere babak el-tzetik ateratzea, beste batzuenak erreko ote diren kezkatu gabe. Garraioan eta etortzeko diren beste ataka guztietan. ●

Ibiltzen, ibiltzen



**ITZIAR MORENO
MARTINEZ**
EUSKAL PERTSONA
POLIFAZETIKOA

Moreno, baje a notificaciones!". Beherantza noa, azkar ibiltzen, urdaila korapilatuta. Paper mordoa luzatzen didate: "Firme aquí". "Zer da?", mesfidati. "Se decreta libertad inmediata" ("Berehalako askatasuna dekretatzen da"). Ffffsst...! Burmuinetik oinetara husten naiz, kolpe batez erortzen den treskaren ura legez. Holaxe, deblauki: barrutik kanpora irrist, tripek, odolak eta hezurrek.

Lipar hartatik aurrera, oroitzapenen argazki-sekuentzia azkar bat baino ez, bizitzak abiadura hartzen duen lekuko. Puskak jaso, ziega garbitu. Aurrena, moduluko neskak agurtu: "Aupa neskak, animo, gora emakumeon arteko elkartasuna, kartzelak apurtu!". Hurrena, kideak agurtu... ai. Ni oinez eta eurak denak han, batzuk zain eta besteak bidean. Glups. Hamar, hoge, berrogei besarkada sentitu; hamar, hoge, berrogei irri grinatsu; laurogei oihu indartsu, eta nik ezin eutsi laurogei malko horiei.

Nola atera kalera horma artean 33 urte bete dituen barruan utzita? Oraindik ere zigor baldintzetan dauden horiek guztiak utzita? Esan nahi baita, Euskal Herrian egonagatik, kartzelak ez direla inolaz bidezkoago; "kartzela bidezkoa" ezinezko oximorona izango delako egun eta eguzki. Gatibuarentzat beti izango baita lurralde arrotza zigor eremua. Kontraesankorra ere, akaso, oraindik

puskatan den gatazkaren errepidean alde bakarra berrosatzen tematzea.

Agur hunkitu hartan, aldiz, denen begietan ikus nezakeen bakarra maitasuna zen eta, ororen gainetik, kartzela urteen gaineko duintasuna, iraultzaren lortzea, elkarren harrotasuna. Luzaz giltzaketuak, neholaz ere garaituak. Geroztik, bakoitzaren zati bat daramat soinean; ez da zama astuna, ordea, harrotasunegalarazten nauen borrokaren oinordetza baizik. Bada, orain, ordeko oin horiekin ibiltzen dihardut, pausoz pauso, iragana etorkizun bilakatzeko nahi eta saiatze horretan, ibiltzen.

Kilometro bat oinez, ibiltzen, ibiltzen, kilometro bat oinez, zapatak puskatzen. Kilometro soil bat eta: zelan topatu duzu herria? Zelako aldaketa, dena aldatu da, ezta? Ohiturak ez dira lehengoak, militantzia moduak are gutxiago, egiaztatu duzu jadanik? Bon, aizue, badakizue zer? Noski garaiak eta moduak aldatu direla, baina... dabilen harriari goroldiorik ez! Borroka dela etengabe ibili beharreko bidea, alegia. Hainbat zapatekin eta baita oinutsik ere ibili izan dugun bide berean aurrera jarraituko dugu, bai horixe; maparekin edo gabe, euritako bakarrarekin estali barik, norabideak beti bezain argia izaten jarraitzen duelako: askatasuna.

Bada, ibiltzen, ibiltzen, jarrai dezagun herria elkarrekin egiten. ●

Grebara!



ARANTZA GUTIERREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Martxoaren 8an Euskal Herriko Mugimendu Feministak zaintza sistema publikoaren aldeko greba bat iragarri zuen udazkenerako, zaintzak ezin baitu negozioa izaten jarraitu. Orain, kalez kale, auzoetan, herrietan, artikulatu behar da greba horretan burutuko den mugimendua. Greba-deialdia, gainera, borroka eguna dena jaiegun bihurtzeko proposamenari (eta aurreko greba feministak esanahiez husteko nahiari) erantzuna da.

Feministok frogatuta dugu irabazitako eskubideek ez dutela betiko irauten, behin eta berriro erasotzen dituztela, eta arriskuan egon daitezkeela defenda-

tzen ez baditugu. Osasunerako eskubide unibertsala omen zena kolokan dago; ezin da onartu ematen ari den osasun-sistemaren pribatizazioa, publikoa suntsitzen den bitartean. Aldi berean, kaleko tentsioa eragiten ari da pentsio-sistemaren mantentzea, eta erretiroa izateko adina atzeratzen eta baldintzak gogortzen dira bitartean, gazteen lanerako sarbidea oztopatzen eta berandutzen. Eta adineko pertsonen zaintza esku pribatueta uzten ari dira, askotan oso lan-egoera prekarizatuan dauden emakumeen bizkarrean zamatuta, gainera.

Beraz, bizitza erdigunean, badaude grebara joateko nahikoa arrazoi. ●

Exekuta dezatela



BEÑAT MUGURUZA
ASEGINOLAZA
IRAKASLEA ETA
IKERTZAILEA

Gogoan dut lagunak direla garrantzitsuena bizitza honetan”, irakurri nuen duela ez hainbeste liburu batean. Edo hori dut gogoan nik, ez dakit zehazki hala zioen. Tira, garrantzitsuena ez dakit, baina ondasun preziatua bai, gutako askoren kasuan urria, eta, beraz, urregorria balitz bezala zaindu beharrekoa.

Whatsapp –edo Telegram– taldeetara eduki diskriminatzaileak iristen zaizkigu, txiste edo *meme* forman, eta kanpainak egiten dira, horiek zabal ez ditzagun, eta are bidaltzaileari hori zabaldu izana aurpegiatzeko. Esaterako, taldekide batek eduki sexista bat bidaltzen badu, kanpainak iradokitzen digu zer egin dezakegun. Noski, mezua ez zabaltzea ariketa erraz samarra iruditzen zait. Besterik da bidaltzaileari –maiz lagunari– errieta egitea, edo taldean sortu den bozkarioari etena jartzea. Hori biolentzia da, eta harreman batzuk alda ditzake –normalean higitze aldera, ez hainbeste sendotze aldera–. Zorionez, ez dut halako mezu motarik jasotzen whatsapp taldeetan, nire estandarren arabera, betiere.

Rage Against The Machine talde amerikarraren "Killing in the name" abesti

Irriño zuztarbako batez erantzuten duzu, ez duzulako giroa gehiegi mikaztu nahi, goizeko hirurak direlako, eta ez diozu "ez nago heriotza-zigorren alde" belarrira oihukatu nahi

dagoeneko klasikoak honela dio behin eta berriz: "And now you do what they told ya". Alegia, gutxi gorabehera, eta itzulpena zutabe honetarako hutsala izanik, "eta esan zizutena egiten duzu orain".

Bada, askoz lehenagotik ezagutzen ez nuen lagun euskaldun batekin nengoela, gau arrunt bateko ordu txikitik, kanta

hori jarri zuten tabernan, ozen. Halako batean, estribilloa zetorrela-eta, gerturatu zitzaidan laguna, eta konplizitatez belarriratu zidan lagunartean erabili ohi zuten aldaera: "*¡Que ejecuten a Atutxa!*".

Ez da segur aski estribillo horrekin egindako hitz-jokorik ezagunena, baina ezagutzen nuen propio moldatutako –eta dezente bihurritutako– *mondegreen* hori ere. Pentsatzen dut Eusko Legebiltzarreko lehendakari ohi Juan Mari atebiratzaleari egindako keinua dela, baina haren alaba eta Bizkai Buru Batzarreko lehendakari Itxasorentzat berdin balio luke. Edo, zergatik ez, prezio berean, aita-alaba *packarentzat*. Bi *pájaro* tiro batez.

Eta irriño zuztarbako batez erantzuten duzu, ez duzulako giroa gehiegi mikaztu nahi, goizeko hirurak direlako, eta ez diozu "ez nago heriotza-zigorren alde!" belarrira oihukatu nahi, ezezko keinu kondeszendiente batekin batera, kezkatzen zaituelako lagunaren erreakzioak. Zeren agian erantzuna isiltasuna izan baitaiteke, noiz arte luzatuko den ez dakizun isiltasuna. Whatsapp –edo Telegram– talde batean zuk zerbait esan eta inork erantzuten ez duenean bezala. ●

Hizkuntzaren erregistroa

Osasun publikoaren gainbeherak osasun arloaren pribatizazioa ekar dezakeela esan ohi da eta, horrekin batera, ekitate-eza. Korrelazioa deitzen zaio horri. Chomsky aipatzen da behin eta berriro: "Pribatizazioaren teknika horrelakoa da: inbertsioa murriztu, ganoraz funtziona ez dezan eta, ondoren, kapital pribatuaren esku utzi." Egoera ikusirik, badirudi arrazoia dutela. Azken urteotan aseguru pribatuak kontratatzeke joera antzematen da: gastu osoaren %25 baino gehiago arlo pribatuan kokatzen da

Horrek, esan beharrik ez dago, jendearen arteko ezberdintasunak eragin ditzake, eta odontologia zerbitzuen erabilera oso argigarria da: egoera ekonomiko hobea dutenek gehiago erabiltzen dituzte. Korrelazioa eta kausalitatea ez dira gauza bera, baina egoera hain agerikoa denez, inork ez du zalantzan jartzen, osasun sailburuak izan ezik, zeinarentzat arazo bakarra den behar adina medikurik ez egotea.

Euskararen erabilerarekin, ordea, ez da inolako korrelaziorik ikusten, kausalitatea ere dagoenean. Eskura daukagun ebidentziaren arabera, arreta norberaren hizkuntzan ez jasotzeak (hizkuntza gutxituekin ohikoa dena) pazienteak dagokiena ez eskatzera bultzatzen ditu, batez ere ahuldade egoeran daudenak, hala nola adinekoak, adin txikikoak, adimen urrikoak eta buru-osasun arazoak dituztenak. Hau da, eskaintzarik ezean, eskaerarik ez eta, alderantziz, zenbat eta eskaintza gehiago, gero eta eskaera gehiago. Osakidetzak argitara eman dituen datuek berresten dute: erabilitzaileen %20k baino ez dute euskara aukeratu lehentasunezko hizkuntza gisa, jakinda ez zaiela emango.

Arreta norberaren hizkuntzan ez jasotzeak pazienteak dagokiena ez eskatzera bultzatzen ditu, batez ere ahuldade egoeran daudenak

Batzuen iritziz ondorioak argi daude: hizkuntza-plangintza goitik behera aldatu behar da. Ez da bidezkoa, antza, bostetik batek euskarazko arreta eskatzea eta, aldi berean, langileen gehiengoari euskara eskatzea. Euskarazko eskaintza eskaeraren arabera egokitu behar da eta, horrenbestez, hizkuntza-eskakizunak gehiegizkoak omen dira. Funtsean, aseguru pribatuen goranzko joera ikusirik, osasun-zerbitzu publiko gutxiago eskaini beharko lirakekeela ondorioztatzea bezalakoa.

Hizkuntza-eskakizunen eredua ez dela nahikoa argi dago. Gaur gaurkoz, ez da osasun arreta euskaraz bermatzen inon ere ez, pazienteen kalterako. Hau da, beraz, konpondu beharreko arazoa, beste edozer baino lehen. Lehen mailako arretatik ospitalera, ahozko zein idatzizko harremanetan, euskarazko arreta bermatu, edonon eta edonoiz.

Medikuak berez ez direla sortzen jakinda, eta pragmatismoz jantziak, badakigu ezin dela den-dena egun batetik bestera lortu. Baina badira, hizkuntza-eskakizunak antolatzerakoan, bete beharko lirakeen oinarritzko zenbait irizpide. Hasteko, mediku edo erizain bakarra dagoen toki guztietan (eremu soziolin-



AITOR MONTES LASARTE
MEDIKUA

guistikoa edozein izanda ere), profesionalak elebiduna izan behar du. Horrek bere baitan hartzen ditu herri txikieta-ko kontsultorioak, Etengabeko Arreta Guneak, ospitaleko larrialdietako zerbitzuak (pediatriari berebiziko garrantzia emanez), eta emergentzietako zerbitzuak (anbulantziak, koordinazio-zentroa, helikopteroa), baita zenbait ospitale mailako espezialitate ere.

Unitate batean dermatologo bakarra balego, esaterako, arreta bi ele ofizialetan eman beharko luke. Profesional guztiei euskaraz lan egiteko eskubidea bermatu behar zaie, eta pazienteei dokumentazio klinikoa euskaraz jasotzekoa. Azken batean, zerbitzu osoa ele bietan ematea da gakoa. Jakinda leku guztietan ez dela zerbitzu-zorro berdina eskaintzen, eremu soziolinguistikoa ezin da jarraibide bakarra izan. Erredura larriak, adibidez, Gurutzetan soilik artatzen dira, Barakaldon. Goierrin artatuko balira ere, irizpideak ez lirakeke aldatuko, unitate bakarra denez.

Hori guztia konplexua dela onarturik, hizkuntza-eskakizunen eredua nahikoa ez dela jakinik, esan gabe doa eskakizunak ezin direla une honetan gutxitu. Alderantziz, euskaraz lan egiteko gaitasuna izango duten profesionalak sortu behar dira, euskarazko arreta osoa bermatu arte. Osasun-sistemaren helburua baita kalitatezko zerbitzua ematea, ekitatez. Euskarari gehiegizko garrantzia eman zaiola adieraztea, pazientei oinarritzko eskubidea ukatzen ari zaienean, Osakidetzak eraisten ari diren bitartean publikoaren alde ekitea soberan dagoela esatea bezalakoa da. Hizkuntzaren erregistroa ez da aldatu: bere interesak lehenesten dituzte, pazienteen eskubideen gainetik. ●

BABESLEA:



Pello Aizpuru

AITORTZA ETA ERREPARAZIOA



BIKTIMEI DAGOKIENEAN, INSTITUZIOEK EZ DUTE BERDINTASUNEZ JOKATZEN



Orduko Eusko Jaurlaritzak –Carlos Garaikoetxea lehendakari–, ez zuen bertsio ofizialarekin bat egin. EAJren EBB ere ez zen ados: “Ondo baino hobeto prestatutako tranpa”. Donostiako eta Iruñeko gotzainak ere ez: “Ez dago etsaia akabatzerik, etsaia delako beste arrazoirik gabe”. Euskadiko Ezkerrako Juan María Bandrésék Espainiako gorteetan orduko barne ministro José Barrionuevori esana: “Sarraski hutsa izan da”... Eta 40 urte, eta aitortza eta erreparazio zain. 1984, martxoak 22: Pasaiko Badia.

 MIEL. A. ELUSTONDO  DANI BLANCO

Pasaia Donibanen gaituzu, badian. “Segada, sarraskia, krimena”, horra hiru hitz hemen noizbait gertatua adierazten dutenak. Honaxe etorri gaituzu...

Familian izan genuen gertakari tamalgarri bat da hona etortzeko arrazoia. Anaia [Dionisio Aizpuru] zenaren heriotza, erailketa, jendeari berriro ere gogoraraztea, hemen gertatutako lau hilketak salatzea. 39 urte dira hura gertatu zenetik... Gure iritziz, kasua argi dago, argi samar, zer gertatu zen badakigu, baina aitortzarik ez dugu jaso.

Horren guztiaren harira etorri gara Pasaiko badia honetara.

Sarraskiaren berri daukanari gertatua gogorarazi, esan duzunez. Ez dakienari, berriz, zer esango zenioke, hemen zer gertatu zela?

Eta ez dakienari nola azaldu? Ez da erraza... 1984ko martxoan, emakume bat [Rosa Jimeno] atxilotu zuen [Espainiako] oliziak. Hitza, hala ere, ez da *atxilotu, bahitu* baizik. Alabaren berririk ez, eta gurasoak Donostiako Polizia etxera joan ziren, Rosa han ote zeuka-

ten galdezka, eta ezetz esan zieten, ez zegoela han. Gurasoak Polizia etxetik irten, eta hantxe ikusi zuten alabaren autoa! Bistan zegoen alaba barruan zeukatena, gezurra esan zieten! Gurasoek salaketa jarriagatik ere, Poliziak ikerketarik ez zuen burutu. Eta nola egingo zuen, bada, Rosa beraien esku zeukaten-eta Donostiako Amarako Polizia etxean!

Zergatik ezkutatu zuen Espainiako Poliziak Rosa Jimeno bahiturik zeukana?



Pello Aizpuru Arbelaitz

AZPEITIA, 1963



Soldatzaile lanbidez, anaiaren memoriaren zaindari ezagutu dugu Pasaiaiko badiari Dionisio anaia hil ziotenetik, Espainiako Poliziak garaiko arduradun politikoen begiradapean sarraski hura gauzatu zutenetik. Harrezkero, sarraski hartan hil zituztenen senideek eta gainerakoek nahi baino epaile gehiago ezagutu dituzte, behar baino tramite eta atzera-aurrera gehiago ibili dituzte 39 urte hauetan. Eta inoiz nekea nagusitu bada ere, edota etsipena, Pello Aizpuru, Arantxi Isart, Jabier Izura, Karlos Delas... ez dira errenditu, ez dute amore eman. Egia jakinik, aitortza eta erreparazioa dituzte helburu.

Beharbada, ordurako Rosa torturazten ari zirelako, Pasaiaiko segada prestatzen ari zirelako, Komando Autonomoen kontra jotzeko eta eskarmentua emateko. Ez dut nik asmatu, ez dugu hildakoen senideok esaten, hemen ibili ziren polizien buruzagiek, edo zenbait buruzagi politikok, halaxe adierazi zuten. Eta hortxe PSOEko José Bonoren hitzak. Bono Espainiako Defentsa ministro eta Kongresuko presidente izan zen, eta bere liburuetako batean, (*Les voy a contar* / Kontatuko dizuet, 2012) kontatzen du alderdiko kide goren batek -Joaquin Leguinak-, esan ziola: “[Enrique] Casasena gertatu zenean, EA]rekin elkartu ginen, erreakzionatu egin behar genuela esan genien, Casasen heriotza ez zela bere horretan geldituko. Eta egun batean, gaeuz, Casas erail zutenek Bidasoa igaro zutenean, ordaina jaso zuten”. Halaxe esaten du, hitzez hitz.

Ordaina jaso zutela...

Zein izan zen ordain hura? Lau pertsonari 113 bala sartzea? 36 balazulo gure anaia zenari? Zazpi tiro garondoan?... Nola liteke, ordea? Lehenengo, tiro bat eman zioten, eta, gero, lurrean zegoela, beste sei tiro, bata bestearen segidan? Beste tiro bat begian zuen! Denera, 36 tiro jaso zituen! Nola gertatu zen? Nola izan liteke Polizia hain krudela, zer dela-eta ankerkeria hori? Basakeria hutsa izan zen!

Rosa Jimeno bahitu zuen Espainiako Poliziak. Hitzordua eginarazi zioten, kideak Pasaia etorrarazteko. Lau kide hil ziren, bizirik atera zen bat, Joseba Merino.

Rosa [Jimeno] amu gisa ibili zuten. Hitzordua egin behar izan zuen, Poliziak gogor torturatu eta horretara behartuta. Kideak *zodiac* txalupa batean etorri ziren Ipar Euskal Herritik badi honetara, eta ordurako ehunka polizia zituzten zain, prest, han eta hemen. Besteak beste, Espainiako Poliziaren GEOkoak [Operazio Talde Berezia] etorrarazi zituzten Guadalajaratik [Espainia]. Eta, horretaraz

gero, haiek Guadalajaratik etorrarazteak esan nahi du, nahi beste denbora izan zutela operazio hura guztiz antolatzeko eta prestatzeko.

Heldu da *zodiac*-a badiara...

Rosa hanketatik lotuta zeukan poliziak. Argi-seinaleak egin zizkien bere lagunei, eta badiara hurreratu zen *zodiac*-a. Eta, betikoa, “Alto, Polizia!” hots egin omen zuten. Rosa lotzen zuen sokatik tira eta eraitsi zuten, eta, segidan, tiro zaparrada. Baina tiro-segida, poliziak eta guardia zibilek *zodiac*-ean zeudenen kontra! Joseba Merino da lekuko, bera da segadatik bizirik atera zen pertsona bakarra. Esaten du *zodiac*-ean zegoela, eta tiroka hasi zitzaizkienean, jauzi egin zuela uretara. Tiro erauntsia atertu zuenean, Polizia bila hasi zen, eta uretan harrapatu zuten. Handik atera zenean, Josebak bizirik ikusi zuen gure anaia; atxilotuta zeukaten. Berdin zeukaten, Rafael Delas, hura ere uretatik aterata, bizirik, zauririk-eta gabe. Beste bi lagunak [José Mari Izura eta Pedro Mari Isart] ez zituen ikusi, ordurako hilak izan behar zuten.

Artean bizirik ditugu *zodiac*-ean etorritako hiru lagun: zuen anaia Dionisio Aizpuru, Rafael

Delas eta Joseba Merino...

Poliziak, orduan, eskuak buru atzean jartzera behartu zituen hirurak, eta banan-banan identifikatzen hasi zen. Joseba Merino identifikatu zutenean, alboratu egin zuten, eta gure anaiari eta Delasi, berriez, esan omen zieten: “Jo eta bertan hilko zaituztegu!”. Eta hartu eskopeta eta bertatik bertara hil zituzten biak. Gau hartan bertan, autopsia. Paco Etxeberria zen egun hartan guardia-ko forentse, eta berak atzertu zituen gorpuak. Etxeberriaren arabera, Rafak [Delas] bertatik bertara egindako eskopeta tiro bat jaso zuen; esan zenez, gorpuak hamaika posta zeuzkan, elkarren oso ondoan denak. Merinok esaten duenarekin bat dator autopsiaren emaitza, alegia, lehenengo tiro zaparrada bat izan zela, eta, gero, bigarren tiroaldi bat, gure anaia-eta hiltzeko. Lekukotasun gehiago ere

Gure Dionik 36 balazulo zituen. ‘Pelitxo’-k 28, eta tiro bat garondoan, eta beste bat begian. ‘Pelu’-k, 28 tiro, eta bat gehiago garondoan. ‘Txapas’-ek, 21”



badira, eta denek ere bi tiro zaparrada izan zirela baieztatzen dute.

Odol hotzean hil zituzten, nahiz bertsio ofizialak besterik dioen.

Bertsio ofizialak esaten du Poliziak altoa eman ziela, komandokideek tiroa eraso ziotela, eta haiek erantzun egin zutela. Poliziak epaileari adierazi zion hainbat argazki zituztela, eraso horren frogaraz, eta bidaliko ziotela argazki-txostena. Beraiek, poliziak, harkaitzetan gorako petrilean zeudela, eta komandokoek botatuko tiroek egindako zuloen argazkiak zituztela. Baina delako argazki-txosten hori

inoiz ez zen epailearen eskuetara iritsi. Eta nahiz eta epaileak frogaraz hori Poliziari behin eta berriz eskatu, inoiz ez zuen jaso. Paco Etxeberriak dioenez, gorpuei autopsia egiteko garaian, [Donostiako] Polloe hilerrian, bizi-tzan lehenengo aldiz, Poliziak bideoz grabatu omen zuen autopsia. Polizia, bideoz, kamera handi bat hartuta, autopsia grabatzen! Grabazio hori ere ez da inoiz agertu.

Zer bide egin zuen kasuak? Epaitegietan, esan nahi dut.

Testigantzak eduki arren, eta Paco Etxeberriaren autopsiaren emaitzak



DOKUMENTALA

"Etxean gordeta dauzkagu garaiko egunkariak –gutziz hori eta ajatuta–, baita hainbat dokumentu, frogaraz eta telebista-irudi ere. Behin, Pasaian hildakoen senideon lantaldara Yuri Agirre eta Xabi Otamendi gazteak bildu zitzaizkigun, ikus-entzunezkoetan trebeak, eta laster ikusi zuten dokumentala egiteko nahi beste material genuela. Eta Jaurlaritzak pausorik ematen ez zuela ikusita, testigantzak jasotzea erabaki genuen, geroko: Rosa Jimeno, Joseba Merino, orduko Jaurlaritzako buru Carlos Garaikoetxea, Paco Etxeberria forrentsea, Barricadako El Drogas –*Bahia de Pasaia* kantuaren egilea–, *El País* egunkariko Fernando Orgambides, senideak... elkarrizketatu genituen, eta sumarioko hainbat dokumentu –ez gure iritziak, gero!–, bildu genituen. Hori eta gehiago egin dugu. Jaurlaritzaren borondatea baizik ez dugu falta".

LUBAKIAK

"Garai batean, lubakiak zeuden. Pertsona batzuk zeuden alde batean, besteak bestean. Baina ez dakit oraindik ere ez ote duten lubakiek irauten. Jakin nahiko nuke zenbat orri eskaini ote dizkion Pasaikoari Gipuzkoan gehien saltzen den egunkariak. Zein jarra izan du, zein segimendu egin dio kasuari? Hutsaren hurrena. Batzuek ez dute honetaz hitz egin nahi, ez zaie interesatzen. Beste batzuek, berriz, guztiz alderantziz jokatu dute, bestelako jarrera dute gurekiko, eta Euskal Telebista ere, azkenaldian, informazio zabala ematen ari da. Kasua ez ahazten laguntzen digu horrek, egunera ekartzen, gertatu zena gogoratzen, eta belaualdi berriei azaltzen".

izan arren, hilketak gertatu eta hiru hilabetera, ekainean, epaileak artxibatu egin zuen kasua. Buruz ari naiz, baina uste dut esaten zuela “deliturik egin dela aztarnarik ez dagoelako”. Halakoren bat. Gure Dionik 36 balazulo zituen. *Pelitxo*-k [Pedro Mari Isart] 28, eta tiro bat garondoan, eta beste bat begian. *Pelu*-k [José Mari Izura], 28 tiro, eta bat gehiago garondoan. *Txapas*-ek [Rafael Delas], 21; bularrean jasotako eskopeta tiroa, eta beste tiro bat garondotik sartu eta kopetatik ateratakoa, goranzko norabidean. Paco Etxeberrriak ondo baino hobeto zehazten du tiro horren goranzko norabide hori. Orduan, nola izango da posible, badia ezagututa, polizia goitik behera egitea tiro, eta *Txapas*-ek goranzko norabidean jasotzea garondoko tiroa? Eta horiek denak hor izanda, nola da posible epaileak kasua artxibatzea, handik hiru hilabetera?

Ez zenuten etsi, ordea. Artxibatzea ez beste behar zenuten.

Urtea baino lehen, kasua berriro irekitzea eskatu genuen. Besteak beste, Joseba Merinori deklarazioa hartzea, haren testigantza ez zen-eta aurreko prozeduran agertzen. Eta ireki zuten, baina ez zuten lanean segitu. Epaileak horretarako daude, fiskala horretarako dago, baina ez ziren saiatu. Bitartean, guk abokatu ibili genituenek ere lanari utzi zioten, eta justizia administrazioak bere lana betetzen ez zuela gelditu ginen, ez aurerra, ez atzera.

Zer diozu garai hartako ezker abertzale ofizialaren edo HBren jarreraz?

Nonbait, harreman onik ez zegoen Autonomoen eta ETAko kideen artean. Baziren haserreak eta sesioak. [Komando Autonomoek] Enrique Casas hil zutenean [1984, otsailak 23], Pasaia-koa baino hilabete lehenago, ezker abertzaleak gogor kritikatu zituen Autonomoak, eta haien ekintzak. Garai gogorra zen, batzuk alde ba-

tera, besteak beste aldera zebiltzan, eta guk ere sumatu genuen babes falta hori, ezker abertzale ofizialarena, nahi baduzu. Zenbait adierazpen, egia da, mingarriak gertatu zitzaizkigun. Herri [Azpeitia] mailan besterik izan zen, herrian ondoan izan ditugu jendea eta udala, alkatea EAJkoa nahiz

“

Tiro egin ez zuten pertsonak, odol hotzean hil? Eta tiro egin bazuten ere, hotzean hil? 113 bala behar al zituzten lau pertsona haiek atxilotzeko?”

ezker abertzalekoa izan. Herrikoak ziren Pasaian hildakobi, *Pelitxo* eta gure anaia, eta nik uste herriak kolpe gogorra jaso zuela, ez ziola begiratu bi herritar haiek talde batekoak ziren, edo besteakoak.

39 urte, eta borrokan segitzen duzue, aitortza eta erreparazio eske...

Duela hogeit urte-edo, Santi González hartu genuen abokatu, eta berak ekarri gaitu oraingo egoera honetaraino. Hasieran indartsu geunden, uste genuen aurrera egingo genuela, epaileek eskaerak onartuko zizkigutela, baina laster ohartu ginen epaileek eskatzen zituzten ikerketa berri guztiak Poliziari berari eskatzen zizkiotela! Eta, jakina, eraiketa haien egilea Polizia bera izanda, ez du inoiz kolaboratu. Eta nola kolaboratuko du, bada, erruduna bera izanda! Are okerrago, kolaboratu ez, eta oztopatu egin ditu gure ahalegin guztiak, ezerezten saiatu da. 2004an, adibidez, kasua preskribitzen saiatu ziren, baina Donostiako Auzitegiak esan zuen ezetz, ez zegoela preskribitzerik, kasuak irregulartasun asko ageri zituela. Adibidez, gorpuak tokian bertan altxatu beharrean, handik kilometro batera altxatu zituztela; bala-zorroak ez zirela ageri, odol arrastorik ezin izan zutela ikusi... Poliziak ezabatu egin zituen odol arrastoak! Halaxe jardun zuen Poliziak, dena estali eta ezkutatu nahian. Kolaboratu?

Ez duzu esperantzarik.

Haiek kolaboratuko duten esperantzan ez dago bizitzerik. Hortik ez dugu ezer lortu. Bata bestearen atzetik jaso ditugu ukoak, sufrikario hutsa izan da. Batean, Polizia; bestean, froga gehiago





eskatu, eta epaileak ezetz, ez zituela onartzen. Ez dakit zenbat epaile eza-gutu ditugun ere. Batzuk, gazteak, hasiberriak ere bai, eta zer egin behar zuten, duela hainbat urtetako kasuari berrekin?... Eta, horrela, zailtasunak gero eta handiagoak izan dira. Bide nekagarria izan da, gogorra, nekeza. Azkenean, instituzioetako bidetik ere jotzea erabaki genuen, eta horixe zaitu mingarriena, instituzioek gurekin duten jarreraz jabetzea: hamaika aldiz salatu dugu Poliziaren eta epaileen aldetik ez dela borondaterik kasua guztiz argitzeko, baina horixe bera esan behar dugu gure instituzioei dagokienean. Hainbeste elkarbizitza, giza es-

kubide, bizitzeko eskubide eta gainerako, diskurtso horixe egun osoan, eta guri kasurik ez. Gure kasua, zer?

Pasaiako segada erabat eta zeharo argitzeko borondaterik ez gure instituzioek, alegia.

Gure kasua garbi-garbia da. Baliabide guztiak dituzte, Eusko Jaurlaritzak bere garaian egindako txostena, adibidez, epaileek esandako hura, komandokoek ez zutela tiro egin, alegia. Tiro egin ez bazuten, zer gertatu zen? Tiro egin ez zuten pertsonak, odol hotzean hil? Eta tiro egin bazuten ere, hotzean hil? 113 bala behar al zituzten lau pertsona haiek atxilotzeko? Eta gainera-

1984KO OTSAILA

Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde garaia zen. Otsailaren 26a zen eguna... Ordurako, urtea lehenago, 1983ko urtarrilean, abiarazia zuen PSOEek –Felipe Gonzálezek Espainiako Gobernuaren presidentetza hartu eta hiru hilabetera–, ZEN (Iparraldeko Gune Berezia) plana, estatuko parlamentuaren esku hartzerik gabe. ETAren eta ezker abertzalearen kontrako plan horretatik etorriko zen GAL antolatzea.

1983ko urriaren 16an, Lasa eta Zabala desagerrarazi zituen GALEk. Abenduaren 19an, Baionan, Ramon Oñederra errefuxiatua hil zuen GALEk. Abenduaren 28an, Donibane Lohizunen, Mikel Goikoetxea *Txapela*-ren kontra atentatu zuen GALEk. Handik hiru egunera hil zen. 1984ko otsailaren 8an, Hendaian, Angel Gurmindo *Stein* eta Bixente Perurena *Peru* hil zituen. GAL.

Otsailaren 16an, hauteskunde kanpaina betean, Iñaki Ojeda hil zuten GEOkoek Barakaldoko Gurutzeta auzoan. Larri zauritu zituzten Juan Manuel Piriz eta Juan Manuel González. Javier Rubio eta Josu Olabarria ere atxilotu zituzten, eta gogor torturatu. Orduan ere, hurrena Pasaiako badian bezalaxe, bi tiro-segida aditu zituzten auzoek: hemeretzi balazulo jaso zituen Iñaki Ojedak; horietatik zazpi, bihotzean. Pirizek hamabi tiro jaso zituen; hiru, Gonzálezek.

Otsailaren 23an, Enrique Casas hil zuten Komando Autonomo Antikapitalistek. Martxoaren 22an, Pasaiako segada. Garaiko PSEko buruzagi Ricardo García Danboreneak esana bete zen: “Hildako bakoitzaren truke, bost hilko ditugu”.

Begia begiaren. Eta Espainiako Estatuaren inpunitatea, gaur arte irauten duena.

EGIAK

1984ko martxoaren 22aren aurreko egunetan, Espainiako Poliziak Komando Autonomoetako kide Rosa Jimeno atxilotu zuen. Torturapean, kideekin hitzordua egitera behartu zuen. Pasaiaiko badia zen lekua. Las-ter, Poliziak segada prestatu zuen. Ehunka poliziak hartu zuen parte, GEO indar bereziak tartean zirela. Bost laguneko komandoaren *zodiac* txalupa badiara heldu orduko, tiroka eraso zien Poliziak, atxilotzeko saiorik gabe, eta Pedro Mari Isart eta José Mari Izura hil zituzten.

Bizirik ziren Rafael Delas, Dionisio Aizpuru. *Zodiac*-etik harkaitzetara eginarazi zien Poliziak, eta hantxe bertan hil zituzten, bertatik bertara eta odol hotzean. 113 balazulo zituzten lau gorpuek.

Bizirik zen Joseba Merino ere, uretara jauzi eginda. Guztia ikusi zuen. Lekuko izan zen. Bera ere harrrapatu zuten. Enrique Casas hiltzeaz akusatu, eta kondenatu zuten. Hamazazpi urteko kartzela zigorra bete zuen. Rosa Jimenok hiru urteko kondena bete zuen.

Hildako lau lagun gorpuek badiatik kilometrora eraman zituen Poliziak. Gorpuek altxatu zituztene-ko, ez epaileak ez forentseak (Paco Etxeberria), izan zuten ohiko aztarnak biltzeko modurik: odol arrastoak, gorputzen kokatzea, bala-zorroak... Autopsiak erakutsi zuen Poliziak postak erabili zituela -galarazia egon arren-, baina balistika frogarik ez zuen agindu epaileak.

Epaileak ez zuen agindu "operatiboan" parte hartu zuten poliziak identifikatzekorik. Epaileak ez zuen poliziak galdekatzetik agindu. Epaileak argazki txostena eskatu zion Poliziari. Ez zion bidali. "Desagertu... galdu...". Epaileak auzia artxibatzea erabaki zuen 1984ko ekainean, sarrraskitik hiru hilabetera. Epailea, Eduardo Calvo Rojas, Espainiako Auzitegi Goreneko epaile izan zen gero, hainbat urtez. Handik hona, 40 urteko bidea egitera doaz hildakoen senideak, garaian atxilotuak, adiskide eta lagunak, auzo eta herrietarrak...



Dionisio Aizpuren eta Pedro Mari Isarten hilkutxak Azpeitiko kaleetan.

ko zehaztasunak: garondoko tiroak, bertatik bertakoak... Basakeria hori, alegia. Hortxe daude testigantzak, zeren zain daude instituzioak? Ez dugu ulertzen. Beti dute aitzakiaren bat. "Izan ere...", batean, eta "Izan ere...", bestean. Beti dute aitzakiaren bat guri babesa ez emateko. "Izan ere...", beti.

Instituzioen aldetik, Eusko Jaurlaritzatik, babesgabezia sentitzen duzue hemengo segadan hildakoen senideek?

Bai. Eta hori ere salatzea erabaki dugu. Ia 40 urte daramatzagu alde batera eta bestera, frogak biltzen eta gainerako lanetan. Eta zenbat ordu, eta zenbat buruhauste, eta zenbat energia... Bitartean, gurasoak hiltzen ari zaizkigu. Lau hildakoen gurasoetan, gure ama [Maria Pilar Arbelaitz Peña] da bizirik dagoen bakarra! 88 urte betetzera doa! Dokumentala [Pasaiaiko Badia, sarean ikusgai] egin zuten, eta han gure amari aitortza jasotzeari buruz galdetu zioten, eta galdera jaso eta ikustekoa zen nola argitu zitzaion aurpegia amari, nola eskertuko zukeen! Hiltzera doala esaten du amak, eta egiaren aitortza jaso gabe hilko dela. Horretarako es-


kubiderik ez dago! Ez gara 1936ko Gerra garaiko kontuez ari! Instituzioek, Jaurlaritzak-eta, behar duten guztia daukate, eta ez dute urratsik egiten.

Esan duzunez, zeuen ama dugu, hildakoen gurasoetan, bizirik dagoen bakarra...

Gurean ez zen politikaz hitz egiten, kontzientzia politikorik ez zuten gure gurasoek. Beti zen "Kontuz ibili!", "Ez saltsan sartu!", etxe askotan aditzen zirenak. Gure anaia hil zutenean ere, aitari ez zitzaion gustatzen omenaldietan-eta parte hartzea. 2013an hil zitzaigun aita, eta, harrezkero, ama bai, etorri izan da ekitaldi batzuetara. Eta une go-gorak bizi izan dituen arren, uste dut gustura sentitu dela, jendearen babesa sentitu duela. Eta halaxe hartu zuen parte dokumentalean. Gainerako gurasoek merezi zuten, eta gure amak ere merezi du: aitortza.

Biktimak alde batean, biktimak bestean.

Hitza guztiz erabilia dela iruditzen zait, kasik madarikatua, hitz manipulatu. Nik, adibidez, ez daukat neure burua biktimatzat. Ni, hildako ba-



Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakari Xabier Aizarnaren telegramak argi uzten du batzar nagusietan ez zutela bertsio ofiziala sinistu eta gertaera "erailketatzat" jo zutela.

ten senitartekoa naiz. Biktima, haiek izan ziren, haiek erail zituzten. Ez zait *biktima* hitza batere gustatzen. Eta ikusi nola tratatzen dituzten biktima batzuk, eta besteak, eta penagarria iruditzen zait.

Mingarri da hori ere...

Izango ez da, bada! Berdintasunik ez dago. Hainbat aldiz eraso diote hemengo badia honetan dagoen oroi-garriari. Txikitu zuten batean, hemengoek esan ziguten gau hartan guardia zibila ibili zirela herrian. Guk Eusko Jaurlaritzari berri eman, Gogora institutuari ere bai, eta alferrik, hitz erdi bat ere ez gure alde. Oroigarriak puskatzeak behin baino gehiagotan gertatu dira, salagarriak dira kasu guztiak, baina alde batekoak direnean, hantxe biltzen dira instituzioetako ordezkariak; beste aldekoak gertatzen zaigunean, gure ondoan inor ez dugula sentitzen dugu. Biktimei dagokienean, instituzioek ez dute berdintasunez jokutzen.

Duela bost urte, kasua beste behin itxi zuten. Orain, aldiz, irekita dago, eta orduko polizia-edo deklarazioa hartuko die epaileak Donostian...

Kasua itxi zutenean ere, epaileak esan zuen hura giza bizitzaren kontrako delitua izan zela, lau hilketa gertatu zirela, baina ez zekitela nor izan ziren egileak. Estrasburgoko Auzitegian helegitea jarri, baina ez ziguten onartu. Hurrena, berriz, Joseba Merinok zenbait irudi ikusi zituen Interneten, eta Pasaikoan parte hartu zuten hainbat polizia ezagutu zituen! Irudiak hartu, eta epaitegira jo genuen. Epailea berria zen, eta kasua ireki zuen, eta Pasaiko badien egun hartan egondako polizia inputatu gisa deklaratzera deitu ditu. Eta, deklaratu aurretik, errekonozimendu diligentzia bat egingo da, ea Rosa Jimenok eta Joseba Merinok polizia horiek ezagutzen dituzten.

Esperantza horixe duzue...

Oso zaila izango da, baina oso zaila izan da orain artekoa, zaila da egu-

Azken hitza

AKORDATZEN AL ZARETE AL ZARETE

"...
urak beltz datoz Pasaian
urak beltz dakartza Pasaiaik
eztarririk urdailean behera ezin
pasa ...
urak beltz dakartza Pasaiaik
eta gu oraindik ur beltz haien
tintaz
gabiltza idazten egunak ...
(Pasaiaiko urak ezin pasa)

akordatzen al zarete nor duzuen
aldamenean une honetan
akordatzen al zarete non gauden
akordatzen al zarete nondik
gatozen
eta nora joan nahi dugun ...
akordatzen al zarete nolako
egunsentia
argituko duen
akordatzen al zarete erori
zirenen izenekin
akordatzen al zarete erori
zirenen ametsekin
akordatzen al zarete

Jose Luis Otamendi, *Pasa ez diren urak Pasaian*, poema atala

nero. Estatu bera ari da bere burua ikertzen, hortxe dago beti estatuaren inpunitea, zailtasunak ikaragarriak dira. Herriko [Azpeitia] udala gurekin batera ari da, akusazio partikularra da, eta haren abokatuak [Aiert Larrarte] esaten du lehen lana eginda dagoela, delitua egon zela onartu digutela, baina epaileek ez dakitela delitua nori leporatu, dokumentazioa galdu egin dela. Benetan ari al dira? Benetan, inork ez al daki krimen hartan zeinek hartu zuen parte? Zeinek eman zituen aginduak? Baten batek jakingo du, seguru, eta guk instituzioei laguntza eskatzen diegu: egin osoa jakin nahi dugu, eta, egiarekin batera, aitortza eta erreparazioa. ●

“ ”

Ezin dugu bakeaz hitz egin agintariek armak finantzatzen badituzte

Gervasio Sánchez

Eskarmentu handiko fotokazetaria da Gervasio Sánchez (Córdoba, Andaluzia, 1959). Aragoi bizi da, Zaragozan, baina munduko gatazka eta gerra-eremuak bisitatu eta bertatik informatzen du oso maiz. *Heraldo de Aragón* tokiko egunkariarentzat beti, eta audientzia handiko hedabideentzat kolaboratzen du. Gurean egindako armek kolpatutako biktimei aurpegia jartzen die, eta zenbaitzuekin mantentzen du harremana. Emakumezko biktimak sarri ikusezin direla dio; horiek ikusarazi ditu *Violencias. Mujeres. Guerras*. (Blume, 2021) liburuan. Bilbon zabaldu du erakusketa otsailean.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  GERVASIO SÁNCHEZ

Gerra eta gatazka eremu askotan ibili zara azken 40 urteetan. Bilduma bat ekarri duzu liburura.

Argazki asko dira, hainbat garai eta leku-takoak. Batzuk uste dut prentsa idatzian publikatuko zirela, jada ez dut oso ondo gogoan, eta libururen batean ere aterako ziren beste batzuk, baina badaude hainbat irudi inoiz argitara atera ez direnak. Nire diska gogor guztiak arakatu ditut, eta azkenean 90 irudi hautatu. 1984tik 2017ra egindako argazkiak dira, guztira 26 gatazka eta gerra eremutakoak. Gatazka konkretu batzuetako argitalpenak egin ditut, baina bilduma bat da, bai. Emakumeek jasaten duten indarkerian fokalizatutako bilduma.

Biktimak dira guztiak, biktima zibilak. Kamerari begira ageri dira gehienak, eta haien begietatik sartzen gara istorioan: kontakizun oso gogorak daude atzean.

Denak dira gogorak, oso bereziak eta oso pertsonalak. Baina alderaketarik ez dugu egingo, ez baitut gogoko biktimen kategorizaziorik egitea. Egia da hainbat gobernuz kanpoko erakundek eta hedabideek konparazioak egiten dituztela; esaterako, gizonezkoek baino gehiago sufritzen dutela emakumezkoek, eta are gehiago haur eta nerabeek eta horrelako kontuak. Baina hori ez da horrela: bakoitzak bere erara sufritzen du eta mina ezin da alderatu. Mina eta sufrimendua

da zerbait ezin dena inola ere konparatu.

Bada beste kontu bat ere: zer pasatzen da Afganistanen? 44 urte daramatzate gerra egoeran. 1979an sobietarrek inbaditu zutenetik ez dute bake garairik ezagutu, eta 2023an ere gerrak segitzen du, nahiz eta ahaztu garela dirudien. Orduan, gerra aurreko garaia ezagutu zuen norbait topatzeko, bere herrialdean bakean bizitzea zer den jakingo duen norbait aurkitzeko, 50 urteak ondo gainditu behar ditu pertsona horrek; eta ziurtatzen dizut nik, adin hori, Afganistanen, oso zaharra dela. Jendea ez da askoz gehiago bizi. Beraz, honekin esan nahi dudana da, gerra betean jaio zenumeak 40 urte dituela gaur egun eta ge-

rran jarraitzen duela. Beraz, atzera ere esango dugu: nork sufritzen du gehiago? Umeak? Nerabeak? Helduak? Emakumeak? Jende batek bizi osoa darama gerran. Eta gerra amaituta ere, okerragoa izan ohi da gerra ondorengo.

Hori biktimen kasuan, baina zer esango zenuke gerra egiten dutenengatik?

Ez da gauza bera gerra batean gizonezkoa edo emakumezkoa izatea. Alegia, gerra egitera kondenatuta egongo zara edo gerra horren kalteak zuzenki jasatera, orokorrean esanda. Orain, hori esanda, kontraesanetan erortzen naiz aurreko argudiaketarekin, baina hala da.

Gizonezkoek egiten dute gerra oro har, nahiz eta noski egon badauden emakumezkoek osatutako gerra armatuak ere. Eta askok baietz dioten arren, ez da egia: emakumeak ez dira gizonezkoak baino gutxiago biolentzia aplikatzerakoan. Bestela ikusi Irakeko Abu Ghraib kartzelan gertatu zena: emakumezko militar

estatubatuar batek agintzen zituen torturak, eta torturatzaile asko ere emakumezkoak ziren. Oso jarrera sadikoak izan zituzten: bortxaketak eta sexu-abusuak, baita gizonezkoiei ere. Emakumeak ziren bortxatzaileak, eta haiei min gehien egingo ziena aplikatzen zieten biktimei.

Violencia. Mujeres. Guerras liburura ekarri dituzun biktima guztiak dira emakumezkoak; haien sufrimendua duzu hizpide. Biktimez hitz egin baino, emakumezko biktimak ekarri ditut hona, ez baita askotan honi buruz hitz egiten. Esaterako, aipa ditzagun indarrez egindako desagertzeak. Desagerturiko gehienak gizonezkoak izan ohi dira, eta esaterako, argazki hauetan kontatzen dira Txile, Kolonia, Salvador eta Guatemalako emakume askoren kasuak, haien bikote, ezkontide, senide edo lagun gizonezkoa desagertu zela 1960 eta 1990 urteen artean. Zenbat urte pasatu dira, eta zenbat denbora daramate haien bila?



Erakusketa zabaldu zuen otsailean, Bilbon, Gervasio Sánchezek. Bisita gidatuak antolatatu zituen.

GORKA PERAGARIKANO



1999KO UZTAILA, TXILE. Ezkerretik eskuinera: Violeta Berrios, Mario Argüelles taxistaren bikotekidea; Vicky Saavedra, José Gregorio Saavedra ikaslearen arreba; eta mekanikari José Rolando Hoyosen bikotea. 1973an, Pinochetek estatu kolpea eman eta gutxira, extrajudizialki fusilatuta zituzten eta hilobi klandestino batean lurperatu.



2011KO AZAROA, KOLONBIA. Blanca Nubiak 58 urte ditu. Bere alaba Irinak 15 urte zituen militarrek bahitu, bortxatu eta erail zutenean.



← **2001EKO URTARRILA, SIERRA LEONA.** Mariatu Kamarak 15 urte ditu. Bi eskuak anputatu zizkioten Sierra Leonako gerran, 1999an.

↓ **2001EKO URTARRILA, SIERRA LEONA.** Hawa Fornah neskatoak 13 urte ditu. Pisu tutelatu batean bizi da, errehabilitazio prozesuan dago. Haur soldadua izan da.



Beste biktima eredu bat da?

Biktima nagusia dela esango nuke. Ikusezinena, ezereen gainetik. Datorren irailean 50 urte beteko dira Augusto Pinochetek estatu kolpe militarra eman zuenetik Txilen. Ezagutzen ditut emakumeak, haien bikotea desagertu zela Pinochetek estatu kolpea eman eta aste gutxira. Pentsa, hogei urte inguru zituzten 1973an. Bizitza galdu zuten, bizi-proiektua galdu zuten, eta haiekin hitz eginda argi ikusten da ez direla heldu lehen zirenak izatera. Askok ez dira gai izan berriz bikotekidea izateko. 70 urte baino gehiago dituzte gaur egun, eta oraindik ere gorpuaren bila jarraitzen dute.

Ziurrenik, gordin esanda, gizon haiek torturak jasango zituzten, agian bortxatuak ere izango ziren, umilatuak... Baina berdin dio: minutu, ordu, egun edo aste batzuetako kontua izango zen. Ziur tiro eman zirela eta gehiago edo gutxiago sufrituko zutela. Aldiz, haien senideak, bikoteak... Esandakoa, 50 urte daramatzate sufritzen. Ez da horri buruz hitz egiten.

“ ”

“Ezin dira biktimak kategorizatu: bakoitzak bere erara sufritzen du eta mina ezin da konparatu”

Han eta hemen leitu dizut gerrak ez direla bake-akordioarekin amaitzen.

Wikipedian sartzen zara eta begiratzen duzu: "Noiz bukatu zen Balkanetako gerra?" 1995 urtean esango dizu. Oso ondo... Eta orduan zergatik egon naiz ni 2022an hango lagunen senideen hiletetan? Bai, ea, egia da 1995ean sinatu zela bake-akordioa, eta gerra "ofizialki" hor bukatu zela. Baina zauriak hor daude.

Urrutira joan gabe ere ezagutzen ditugu halakoak. 90 urte pasatu dira Espainiako Gerra Zibiletik, eta gerra amaitu zen Francok "irabazi dugu" esan zuenean. Hilobiak desobiratzen ari gara oraindik eta gorpuak identifikatzen; gatazka ez da amaitu. Gerraren ondorioak sufritzen jarraitzen dugu. Eta bai, edonon begiratuta ikusiko duzu 1939an amaitu zela gerra zibila. Pentsa, 80 urte baino gehiago igaro dira.

Urtea bete da berriz, Europa Ekialdean gerra lehertu zenetik. Hitz egin dezagun biktimez.

Konparazio eta kategorizatorik ez duzula egin nahi esan duzu, baina alde dago ukrainarra izan edo, esaterako, siriarra izan. Ikusi besterik ez dago batzuk nola hartu ditugun etxean.

Jarraipen handia egiten zaio Ukrainako gatazkari eta biktimei ere izugarriko ahotsa ematen zaie. Hortik abiatu behar dugu, European gaudela eta erasotzailea Errusia dela.

Egia da ukrainarrek errazago dutela herrialdetik irtetea beste edozein gerretako zibilek baino. Azaroan egon nintzen Ukraina eta Polonia arteko mugan, eta neure begiekin ikusi nuen polizia poloniarrek nola jipoitu eta atzera bidaltzen zituzten siriar, eritrear eta afganiar errefuxiatuak. Ukrainarrek berriz, zabalik zuten bidea. Eskubide berak dauzkate? Ez, noski. Baina biak dira biktimak.

Errefuxiatu oldea oso handia izan da. Deigarria egin zait kontu bat. Ukraina Mendebaldeko milioika herritarrek alde egin dute herrialdetik, eta zonalde horretan ez da ezer katastrofikorik gertatu. Ulertzen dut, erabat, beldurra izan eta alde egin nahi izatea; baina, aldiz, Ukraina Ekialdean jende asko ezagutu dut bertan geratu dena leherketa azpian. Ukraina eta Errusiaren arteko mugan esaterako, Errusiaren erasoaldiak jaso zituzten lehenik eta Ukrainarenak gero. Alegia, alde egitea gehien behar zutenak geratu egin dira gatazka eremu betean, eta ondoen zeudenak izan dira herrial-

dea utzitakoak. Hori bai, eta beti, bere ipurdia salbatzen duenak hala egiten du ekonomikoki gaitasuna duelako.

Bilbon ziatu gara elkarrizketarako. Aipatu duzun fronte horretara tankeak eta armak bidaltzen ari dira hemendik kilometro eskasera, eta hainbat pieza ekoiztu ere gertu egiten dira.

Azaroan hilabetez egon nintzen bi herrialdeen arteko mugan, eta itzuli eta hurrengo egunean Radio Euskadi irrati publikotik deitu zidaten elkarrizketa baterako. Aurrenengotariko galdera izan zen ea nor ari zen gerra irabazten. Nire erantzuna izan zen Euskadiko armagintza enpresak ari direla irabazten, Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta gainera. Eta irratian isiltasun ederra egon zen (barrak).

Argi dago biztanleria errusiar eta ukrainarrek ez dutela ezer irabazteko, dena dute galtzeko. Galtzaile nagusiak izango dira eta oraindik ere asko dute galtzeko, hori da kezkarriena. Beste

aldean, berriz, jende jakin bat ari da diru asko irabazten, aldi berean estatuen defentsarako aurrekontuak igotzen ari direlako. Hau guztia ziurrenik gertatzen ari da Berlingo Harresia erori zenean ez zirelako gauzak ongi egin.

Zer esan nahi duzu?

NATOk birdiseinatu egin behar zuen. Anaia zaharrari, AEBei, bere herrialdean geratzeko esan eta Europako mailako estruktura militarra bihurtu behar zuen, bestela haien menpe gaude beti eta haien interes eta aginduetara jarduten dugu. Gertatzen dena da gai militarra eztabaida puntu nagusia izan ohi dela Europar Batasuneko estatukideetan: ez ditugu gerrak nahi, bakezale izan nahi dugu, giza-eskubideak errespetatu... Eta orain, gaurtik biharrera biderkatu egingo dugu gastu militarra.

Espainiako Estatuan, harrigarria bada ere, "inoizko gobernurik ezkertiarrenak" egingo du hori. Orain, Podemoseko jendearentzat gaia tabu da eta ezin da hitz egin. Esaterako, eta hau aspalditik



1994KO OTSAILA, BOSNIA-HERZEGOVINA. Aida, Selma, Tina eta Dzenitak 10 eta 11 urte dituzte. Sarajevoko auzo bereko bizilagunak dira. Txikitatik jolastu izan dira kalean, baita gerra lehertzean ere. Aidaren aita taxi-gidaria zen gerra hasi eta frontera joan arte, eta haren autoan ezkutatzeko dira lau neskatok. 300 metro eskas daude gerra frontera. Kaleko animalia zaurituak zaintzen dituzte atzeko eserlekuetan. Gaur egun, Aida Finlandian bizi da familiarekin; Dzenitak Alemanian osatu du familia; eta Tina Italian bizi da bikotearekin. Soilik Selma bizi da Sarajevon.



1992KO OTSAILA, GUATEMALA. Eusebia Arroche 12 urteko neskatu prostituta da. Etxetik alde egin zuen aitaren eta anaien abusuen ihesi. Eskrupulurik gabe bortxatzen zutela dio berak. Kalean bizi da eta normalean baino hiru aldiz gehiago ordaintzen diote sexuagatik, oso gaztea delako.

dator, saudiei eta marokoarrei saltzen dizkiegun itsasontziak Cadizen egiten dira, Navalian (Andaluzia). Podemosek agintzen du udalean aspalditik. Alkateak ez du ezer esan behar? Noski, 5.000 langile dituen enpresak salto egingo dizu gainera, eta horren aurrean isildu egiten da. Orduan, oposizioan gaudenean sekulako zarata egingo dugu eta gobernuan gaudenean gure printzipioak jango ditugu, ezta?

Zer gertatuko zen eskuinak gobernatuko balu?

Urteak daramatzat Espainiako arma industria aztertu eta jarraitzen, eta harri-garriena da sozialistak gobernuan zudenean saldu izan direla inoizko arma gehien. Biolentziaren aurkako apostolua zirudien José Luis Rodríguez Zapateroren (PSOE) gobernuan, 2004tik 2011ra, seikoiztu egin zen arma salmenta. Seikoiztu! Gero, noski, Mariano Rajoyk (PP) jarraitu egin zuen igotzen, baina ez abia da berean, motelago.

“ ”

“Euskal Herrian ezkerreko sektore jakin bat isil-isilik dago. Nolatan?”

Herritarrok onartu egin dugu estatuek armak saltzea?

Duela hogeita urte milioika pertsona irten ziren kalera “Gerrari Ez” esateko. Orduan AEBak zirelako erasotzaileak? Eta orain Errusiaren aurka inor ez da kalera aterako? Non dago ezkerria? Espainiako Estatuan, eta are nabarmenago Euskal Herrian, ezkerreko sektore jakin bat isil-isilik dago. Nolatan?

Beti esan izan ohi dut, gerra batean jendea hiltzen duena erruduna dela, bai-

na behintzat “zerbait” egin duela, edo “zerregina” badaukala behintzat; errudunak dira hiltzailea zuzitzen dutenak ere bai, baita txalo egiten dietenak ere; edo nor hil agintzen dutenak; baina errudunak dira ere beste aldera begiratzen dutenak. Nazismoan asko gertatu zen Alemanian: zure bizilagun judutarra eraman egiten zuten, baina “ez zenekien nora”. Mesez... Garaiko aktore, idazle, zine zuzendari edo ingeniariarik onenak alemaniarak ziren-eta. Ez ziren analfabetoak eta ondo asko zekiten zer ari zen pasatzen.

Hedabideok ere ardura dugu horretan, esango duzu.

Iritzi publikoak hobeto egon behar du informatuta eta arazo oso larri baten aurrean gaude. Desinformatu eta gaizki informatzen dute hedabideek; kalitate oso eskasa dago eta manipulatu egiten da oro har. Ez gara ari egin beharko genukeen lana egiten.

Askok interes ekonomikoak dituzte tartean. Ea, hemen nork kritikatzeko du



1997KO OTSAILA, MOZAMBIQUE. Inhambane hirian hartutako irudia da baina beste edonon izan daiteke. Haur eta nerabeek kilometroak egiten dituzte ur bila joateko. Minaz jositako lurak dira, lurrazpian daude, eta lur horiek lantzen dituzte elikagaiak lortzeko. Istripu ugari gertatzen dira.

euskal armagintza industria? Lau katuk. Ezin dugu bakeaz hitz egin gure presidente edo lehendakaria armak subentzionatzen ari bada; eta diruz laguntzea, finantzatzea da. Hau da, gobernuek finantzatzen dute gerra. Gure diruarekin hiltzen dira zibilak. Nork hitz egin dezake bakeaz?

Atzera ere jar dezagun fokua Ukrainako gerran. Armak era masiboan bidaltzen ari dira NATOko estatukideak. Gero eta gatazka geopolitikoagoa bihurtzen ari da?

Abendutik-edo esango nuke baietz, bigarren zati batean sartu dela gatazka. Jada ez da Donbas eta listo. Internalizatu egin da guztia. Aurreko batean zioen Olaf Scholz kantziler alemaniarrek, hitzez hitz, dagoeneko gerra Ukrainatik harago doala NATO tartean erabat sartu delako. Gerra internazionala dela alegia; hau da, mundu mailakoa. Ez diot 3 zenbakia aurretik jarri nahi, baina alemaniarrek hitz egiten dutenean argi mintzo dira.

Oinarri-oinarrian errusiarrek desatze bat egin dute, kaosera bideratu dute egoera. Tokiko gatazkei errespetua diet, baina finean haiena ez zen herrialde bat inbaditu dute, eta erritmoa areagotzea erabaki 2022an. 2023ak ere itxura hori du, itxura txarra. Egin behar dena da konponbide egoki bat adostu. Errusiarrek exijituko dute irtenbide duina izatea, ez baitira burua jaitsita etxeratu. Ukrainako Gobernuak gerra nahi du ordea, Zelenskyk gerra nahi du. Eta NATO sartu nahi du tartean; momentuz, lortu du.

Nork irabaziko du gerra?

(barreak) Esan dizut lehen nortzuek. Horrez gain, beti, gutxien inplikaturik daudenek irabazten dute gerra. Estatuatuarrak oso eroso daude ekonomikoki, estrategikoki, logistikoki, politikoki eta militarki. Bai gerrak baita Errusiari ezarritako zigorrak ere asko zigortzen dute haien etsai handienetakoa den Errusia. Petrolioia daukate

gainera, gasa, nazioarteko merkatuetan prezioak kontrolatzeko gaitasuna... Dena. Oso ondo kokatuta daude, eta ikusi beharko da beste aldean zer egiten duen Txinak. Geopolitika kontua da, baina lurrera itzulita, lehen esandakoa: oraindik ere asko dute galtzeko Ukrainako herritarrek, baita errusiarrek ere. ●



Ibai hegalariai

munduko klimaren protagonista funtsezko horiek

Klimaren hondamendiari ihes egitekotan, ez da aski izango atmosferan murriztea negutegi eragineko gas kontzentrazioak. Beharrezkoa izango da oihanak eta lurzorua zaintzea ere, ez ditzaten hondatu deforestazioak eta nekazaritza intentsiboak; zeren eta uraren zikloa ere oso garrantzitsua baita klima erregulatzeko. Hori ulertzen hasi berriak gara.

 DANIEL HOFNUNG /  Reporterre Le média de l'écologie Artikulu hau Reporterre-k argitaratu du eta CC by-sa lizentziari esker ekarri dugu.

New Yorken 1992an klimaren beroketari buruzko Biltzarrearen prozesua abiatu bezain laster, argitalpen zientifikoak hasi ziren arreta jartzen “aireko ibai” deituei, eurien sorreran garrantzia handia duten ur-lurrinezko korronteei. Hasieran “ibai troposferikoak” izendatutako “aireko ibai” horiek sortzen dira ozeanoetako ebanporaziotik eta Amazonia, Kongo eta Siberiako oihan handietako ebanpotranspiraziotik. 1992an *Tropospheric rivers? A pilot study* (“Ibai troposferikoak? Azterketa pilotua”) ikerlanean Reginald Newell eta beste zenbait zientzialarik zioten aireko lurrin-korranteon emaria oso handia zela: Amazoniakoa hurbiltzen zitzaion Amazonas ibaiaren emariari –165.000 m³ segundokoa–.

Hamabost urte beranduago, 2006an eta 2007an, San Petersburgoko Victor Gorshkov eta Anastassia Makarievak formulatu zuten punpa biotikoaren printzipioa: “Mekanismo bat zeinaren bidez berezko oihanek sortzen eta kontrolatzen dituzten ozeanotik lehorrera doazen haizeak, lurreko bizi-klase guztiei hezetasuna eramanez”. Honela erakutsi zuten oihanek eta zuhaitzek klimaren gain jokatzen duten rol funtsezkoa: oihan handiek ebanpotranspirazio bidez sortutako lurrin-ibaiei gehitu behar zaie ozeanoei xurgatu eta lehorrean milaka kilometrotara barnatu arazitako hezetasuna.


Hego Amerika osoaren kliman rol erabakigarria dute Amazoniatik sortu aireko ibaiek

Idea hau bereganatu zuen 2014an Brasilgo INPE Espazioaren Ikerketarako Institutu Nazionaleko ikerlari Antonio Donato Nobrek, *The Future Climate of Amazonia* (“Amazoniako etorkizuneko klima”) azterlanean. Hartan, Nobrek azpimarratzen zuen Amazoniako oihanetik sortutako lurrinezko aireko ibaiek rol erabakigarria jokatzen dutela Hego Amerika osoaren kliman (hesi lana egiten duten Ande mendietatik ekialdekoan), baita Ipar Amerikako zati batekoan ere, eta euriak sortzen dituztela.



URAREN GARRANTZIA

Victor Gorshkov eta Anastassia Makarievak punpa biotikoaren teoria garatu dutenetik, zientzialariek arreta handiagoa ematen diote uraren zikloak klimarentzako daukan garrantziari. Argazkia: Science et Avenir.



GELDITU BEREHALA DEFORESTAZIOA

Baina Antonio Donato Nobrek deforestazioaren kalte suntsitzaileak ere salatzen zituen: gutxitu egiten ditu zuhaitzen ebapotranspirazioak eragindako ur-lurrun kopuruak, eta ondorioz haie-tatik sortutako euriak ere bai, eta punpa biotikoari nahasmendua eragiten diote, asko kaltetzen dituelako itsaso inguruko basoak, itsasoko aire hezea xurgatzen dutenak. Gerta liteke suntsiketa honek ondorio dramatikoak ekartzea: Amazonia sabana bihurtzea, eremu bat non zuhaitzen presentziak indarra galdu duen belar motako landareen mesedetan. Lehendik bada sabana bat Cerradon, Amazoniako hego aldean, eta jada haren %40 suntsitua dute abelazkuntzaren eta soia soroen mesedetan.

Horrela, Brasilgo biztanleen eta jardueraren gehiengoa biltzen dituen Sao Paulo hiriarren mendebaldeko eremu zabal bat bilakatu liteke basamortu, gaur antzeko latitude batean Australiak daukan basamortu itzelaren antzekoa. Berrikitan, 2021ean, Arte telebista kateak eskaini du Pascal Cuissotek *Le mystère des rivières volantes d'Amazonie* ("Amazoniako ibai hegalarien misterioa") filma eta bertan erakusten da nola jada bilakaera hori hasia den: Iguzuko ur-jauzi famatueta, aipatu eremu horretan Brasil eta Argentina arteko mugan daudenetan, garai batean ura baldin bazihoan hiru kilometroko zabalera batean, gaur egun sasoi lehorrean zabalera horren erdia baino gutxiago hartzen du.

GIEC taldea irteerarik gabeko bide batean da, ezikusia egin diolako urak kliman daukan garrantziari

Beste alde batetik, UNEP Nazio Batuen Erakundearen Ingurumenarentzako Programak 2021eko abuztutik gomendatzen du "lurreko klima freskatzeko eta paisaiak hidratatzeko lan egitea landareekin, lurzoruekin eta urarekin". UNEPek argi eta garbi ondorioztatzen du klimaren hondamendia saihesteko beharrezkoa dela deforestazioa berehala gelditzeaz gain, mundu osoan ekitea oihanak landatzeari eta gartzea lurzoruek biziberritzen dituzten nekazaritza praktikak, esate baterako agroforesteria.

Izan ere, gaur nagusi den laborantza ereduari, ongarri kimikoetan oinarrituta dagoelako, lurzoruetan geratzen den gai organikoa (humusa) hain murrizta izateak eragiten du lurzoruek galtzea urari eusteko ahalmena, eta soroek lehorteari aurre egiteko erresilientzia gutxiago edukitzea. Horrek ondorioak dauzka ebapotranspirazioan, hau ezberdina bai-

ta lurzorua estaltzen duen landaredia laborez, belalez, heskaiz edo zuhaitzez osatuta dagoen arabera.

GIEC Klimaren Garapenerako Gobernuen arteko Aritu Taldea irteerarik gabeko bide batean sartu da, ezikusia egin diolako klimaren aldaketetan urak daukan garrantziari, soilik kontuan hartuz negutegi eragineko gasak. Zeren eta, atmosferan negutegi eragineko gas kopuruen handitzea geldi araztera iritsiko bagina ere, berdin jarraituko lukete deforestazioak eta lurzorua okupatzeko dauzkagun gure moduek, klima aldaketa eraginez eta Lurreko eskualde zabalak basamortu bilakatzeraino iritsiz.

Egia da GIEC sortu zenean (1988. urtea) klimaren aldaketen esplikazioa negutegi eragineko gasen kopuruen handitzean zetzala. Baina gaur egun, planetaren idortzea eta desertifikazioaren zabaltzea saihestu nahi baldin badira, nahitaezkoa da kliman urak jokatzeko duen rola kontuan hartzea. Beraz, berehala gelditu beharra dago oihan handien deforestazioa, baso berriak landatu eta laborantza ereduari iraultzeari ekitea. Zeren eta lortu baitaiteke nekazaritzak uraren zikloa suntsitzeari utzi eta, alderatuz, aldaketaren palanka bihurtzea, hezetasunari eusteko eta karbono gehiago lurrunan atxikitzeko gaitasuna daukaten lurzoru bizien bitartez.

Daniel Hofnung, ingeniari gaur erretretan sartua, Eau Ile-de-France (Ile-de-Franceko Ura) koordinakundeko lehendakaria da. Martxoaren 22an Uraren Nazioarteko Eguna dela eta, iritzi artikulua hau frantsesez argitaratu du Reporterre aldizkarian. ●

DOINUELE



DANI BLANCO

Plazara, euskara plazara!

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ziburun hasi zen dena. Ez Maurice Ravelen boleroa bakarrik. Atsegin ditut kointzidentziak, tokatzen zaizkit ondoan eta ez dakit bilatu egiten ditudalako edo erakarri egiten ditudalako; baina aste honetan ere badut polita.

Doinuele euskara hutsezko plazen sarea aurkeztu dutela eta, horren berri emateko proposamena jaso dut. Galdeza hasita, ARGIAk Ziburuko Baltsan elkartearekin antolatzen duen euskarazko liburu eta disko azokaren bueltan piztu omen zen ideia. Eta hara, horri bueltaka nabilela, non agertzen zaidan astearte iluntzean *Oroimen historikoa* podkastaren saio berria, *Ziburun hasi zen dena* izenburupean. Ez al da polita, irakurle?

Martxoaren 15ean aurkeztu dute, esan bezala, euskara hutsezko plazen sarea. Badira Euskal Herrian hizkuntza oinarri eta helburu hartuta euskara hutsezko liburu eta diskoen azokak antolatzen dituzten herriak. Ez azokak ba-

karrik, (H)ilbeltza bezalako euskarazko nobela beltzaren astea ere bai. Hortik sarea “plaza” izaerarekin lotu izana eta ez “azoka”-rekin.

Sarea osatu nahi izan dute indarrak batzeko, elkar sostengatzeko, elkarren berri izateko, ideiak eta esperientziak trukatzeko eta, nola ez, egutegia adosteko. Helburu zehatzak, txikiak, baina bide bat egiten lagunduko dutenak, lan-karga handiegirik suposatu gabe.

BAKOITZAK BERETIK, KOORDINATUTA

Hernani, Lazkao, Ziburu, Baztan, Galdakao, Azkoitia, Sara eta Zarautz. Horiek dira oraingoz sarea osatzen dutenak, baina oso posible da beste lekuren batean ere antzeko ekimenen bat antolatzen ibiltzea eta atea zabalik dutela adierazi dute aurkezpenean.

Bakoitzak beretik egingo du lan, hau-tua bera: euskara hutsezko azokak eta plazak antolatzea euskal literatura eta



Non eta noiz dira Doinuele sarearen aurtengo zitak?

Urtarrilean iragan zen Baztanen (H)ilbeltza, (H)ilbeltza elkarteak antolatuta.

Martxoaren 24 eta 25ean Azkoitian *Geure Gelatik*; Maxixatzenek antolatuta.

Apirilaren 27tik 30era Galdakaon, *Sormene*, udaleko euskara zerbitzuak antolatuta herriko liburudendekin batera.

Maiatzaren 5etik 7ra Zarautzen *Literaturia*, Literaturia elkarteak antolatuta.

Ekainaren 3an Ziburun, Baltsan elkarteak eta Argia komunikabideak antolatuta.

Irailaren 30ean Hernanin, Dobera euskara elkarteak antolatuta.

Urriaren 20an eta 21ean Saran *Ikusi Mikusi*, Kiribil, Pamiela, Galtzagorri, Euskokultur eta Denon Artean-ek antolatuta.

Abenduaren 15etik 17ra Lazkaon, Gerricko elkarteak antolatuta.

musikagintza sustatzeko. Hemendik aurrera egitarau bakoitzaren kartelean norberaren logoaz gain, Doinuelerena ere jarriko dute, independenteki baina Euskal Herri mailan modu koordinatuan lanean ari diren seinale.

“Itzaletik ikusgarritasunera ekarri nahi ditugu plazak, urtean zehar euskal irakurle eta musika zaleari ibilbide bat proposatuz Euskal Herrian barna, euskara hutsez egiten diren ekimenak isolatuak ez direla erakutsi eta elkarri josiz haiek indartzeko”, adierazi dute aurkezpenean, sarea indartzeko elkarrekin bazkaltzera joan aurretik –ekipoa Euskal Herrian behintzat beti egin izan da hobeto jan-edanaren bueltan, ezin uka–.

Osagaiak ez dira txarrak: nahikoa bide badago lanerako, eta lanerako go-goa duen jendea ere bai. ●



ERLEA

ETORKIZUNeko OROITZAPENETAN EZINBESTEKOA

Ez daukanak ongi ohi daki edukitzea zein den ona... Inoiz entzun al duzu erleen amaierak gure amaiera ekar dezakeela? Gure amaiera ez dakit, baina gure ingurumenarena bai.

Garrantzia handiko intsektua da erlea. Bere lana ezitia egiteaz harago doa. Eztirik gabe bizi gintezke, bai; baina beste lanak egiteari utziko balio... Hor dago gure ingurumenean erleak duen eginkizun garrantzitsua: polinizazioa, loreen ernalketa.

"Txikitako oroitzapenen artean dauzkat gordeta aitona-amonekin gaztainak biltzera joandako egunak. Bota zaharren laguntzaz morkotxak zapalduz gaztainak ateratzen ziren bistara. Bi poltsikoak betetzerakoan gerturatzen nintzen amonarengana saskian biltzeko. Zenbat atzamar punta zulatzen genituen morkotx horien orratz zorrotzekin... A ze tiro hotsa gaztainak erretzen ziren bitartean... Ez nekien erlea gaztain loreetan ibiliko ez balitz, ez genukeela horrelako unerik biziko".

Loreek nektar gozo bidez erakaritzen dituzte erleak. Erlea nektar bila joaten denean, hankako orraziekin polena biltzen du pilotatxoak osa-

tuz. Polen hori landareen zati arrada. Loreek beraien fruitua eman ahal izateko garraiatuko du erleak polen hori; lorez lore, zati arra zati emean utziz.

"Oso masusta zaleak ziren nire lehengusu gazteak. Sastraka handienaren bila ibiltzen ginen, bertan baitzeuden masustarik handienak ere. Masusta gorri ondu gabeak, berdeak, eta beltz-beltzak. Ezpain moreekin agurtzen genituen egunak... Ez nekien erlea masusta loreetan ibiliko ez balitz, ez genukeela horrelako unerik biziko".

Badira erlea galdutzat eman duten herrialdeak. Erlea galtzeak dakartzan arazoez aski jabeturik daude, noski. Melokotoi zuhaitzen loreak banan-banan ernaldu behar izaten dituzte artifzialki.

"Txooooo! Zenbat parranda upel bete sagardoren ondoan, zenbat algarra, bertso txar eta dantza urtez urte Euskal Herri osoan... Ez nekien erlea sagarrondo loreetan ibiliko ez balitz, ez genukeela horrelako unerik biziko".

Ba hori. Garrantzia handiko intsektua da erlea. Zure etorkizuneko oroitzapenetan ere bai. ●



MATTIN JAUREGI
@BALERDIPEKO

EUSKAL HERRIKO AGENDA

www.bizibaratzea.eus

MARTXOAK 30 / HENDAIA

Garbiñe Larreak *Sei belarren kontakizuna* hitzaldia emango du **18:30ean Baleazaleak elkartean.**

MARTXOAK 31 / LEKUNBERRI

Jakoba Errekondok hitzaldia eta kontsultategia eskainiko ditu **18:30ean Gaztetxean.**

APIRILAK 1 / ARANTZA

Jakoba Errekondoren hitzaldia **17:00etan.**

Garbiñe Larrea eta Jakoba Errekondoren hitzaldia antolatu nahi baduzu idatzi:

bizibaratzea@bizibaratzea.eus

TXORIEN NEGARRA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Txoriek negar egiten dute. Ez guk bezala, nonahi, noiznahi, mainontzi, edota besterik gabe barruari eutsi ezinik... Ez zait berehalakoan ahaztuko behin Beran gertatua: urtero Ertz musika jaialdi sonatua egiten zen bertan eta tarteka paisaiarekin zerikusia zuen ekitaldiren bat egiten genuen; horietako batean herrian barrenako ibilaldi bat eratu genuen han topa zitezkeen zuhaitz, paisaia, baratze eta abar aitzakiazat hartuta. Ibilaldia prestatzen bitxikeriarik ere sortu zen; adibidez, herri erdian dagoen Himalaia-ko zedro (*Cedrus deodora*) handi baten azpian espaloia konpontzen ari zen kanpotar bat. Zuhaitzaren bueltan nabilela, neure buruari: "Horko hori ez duk ba zuhaitz honen amonarengandik urrun jaiotakoa izango". Nongoa ote zen galdetu eta pakistandarra. Harrapazank! Zuhaitzaren zainaren lurrekoa! Zuhaitz haren ibilbidea adierazi nion eta emozionatu zen. Xueb du izena eta lagun egin ginen...

Prestatu nuen ibilaldia, beratarren historian zehar landutako paisaiaren inguruan, zuhaitz eta baratze, lorategi eta mendi malkar. Ni, kanpotik etorritako bat, beratarrei bere buruaz hitz egitera nentorren; beraiek zirenaz eta beraien amonek eta amona haien amonek eta amonek egindakoaz interpretazio batzuk ematera. Abiatu gara eta hemen Himalaia-ko hura, eta baratze-ko porruak (*Allium porrum*), eta erreko-ko haltza (*Alnus glutinosa*) eta iritsi gara herriko musika eskolara. Hasi naiz bertako haur eta ikasleek sortutako musika entzuten duten inguruko landareei buruz ttalaka, eta ezin ahantzi eskolari izena eman diona: bertako Illekueta auzoko Agramontea etxean jaiotako Isidoro Fagoaga Larratxe, tenor handia. Hari buruzko datu bakar bat eman nahi nuen orduan: Wagnerren operak mundu guztian ondoen kantatzen zi-



Txori-negarra brinoioandoan.

tuen tenorrek alemaniarrek Gernika bonbardatu zutela jakin zuenean, isildu, kantatzeari utzi eta Euskal Herrira bueltatzea erabaki zuen. Esaten amaitu baino lehen, bisita gidatura etorritakoek inguratuta, malkotan nintzen, bere ahots harien tokian jarri eta nik zer arraio egingo ote nukeen pentsatuz... Eta betiko isiltzea erabaki zuen.

Eta bai, txoriek ere negar egiten dute. Ez nonahi, noiznahi. Arbola jakin batzuen gainean soilik. Fruta hezur-duna ematen duten arboletan: muxika edo mertxika (*Prunus persica*), arana (*Prunus domestica*), gerezia (*Prunus avium*), gingondoa (*Prunus cerasus*), brinoia (*Prunus persica var. nectarina*) edo paraguaioa (*Prunus persica var. nucipersa*) ematen duten arbolen enborretan eta adarretan. Arbola horiek zauri bat duten tokian izerdi mordoa jariatzen dute eta airearekin gatzatu edo gogortu egiten da; anbar kolore argi ederreko muki tankera hartzen du, tarteka handia eta deigarria. Negar egin duen txoriaren malkoak dira euskaldunontzat. "Txori-negarra" esaten zaio. "Txori-muki", "txori-ezti", "txori-kandela" eta "txori-minger" ere bai. ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Tomate haziak kostaldean ereiteko noiz da garai ona? (Josune Uzin).

Kanpoan landatzeko bada, martxoa da ereiteko hilabetea. Onena ilgoran ereitea da eta hobe lore edo fruitu egunean. Gero maiatzean eta ekainaren lehen erdian landatuko dira.

Martxoko ilgora 16 eta 28 artean izango da. Fruitu egunak: 16 egun osoa, 17 goiza, 24 arratsaldea eta 25 goiza. Lore egunak: 20 egun osoa eta 28 arratsaldea.

Bidali zure galdera:
bizibaratzea@bizibaratzea.eus

ELIKA KOOPERATIBA

“PROIEKTU KOLEKTIBOAK BEHAR DITUGU, NEKAZARIA BAKARRIK EZ SENTITZEKO”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2016ko azarotik dihardu Joritz Mitxelena Zapirainek Oiarzungo Elika kooperatiban nekazari. Herrian baserriak galtzen ari zirela eta nekazaritzaren egoera kaxkarra zela ikusita, gazte talde bat elkartu eta gaia mugitzen hasi zen. “Udalarekin harremanetan jarri, eta honek lursail bat lehiaketara atera zuen. Elika kooperatiba aurkeztu, eta geroztik lursail horretan ari gara lanean”, azaldu du nekazariak. Urteotako ibilbidean zailtasunak eta gorabeherak izan badituzte ere, egonkortutako proiektua da honezkerok Elika. Saskiak egiten dituzte astero, eta horrez gain, tokian bertan nahiz Laboren barazkiak saltzen.

HIRU NEKAZARI, TALDEAREN BABESEAN LANEAN

Mitxelenaz gain, Alva Chavez eta Arantxa Zapirain ari dira nekazari lanetan Elikan, lehen biak jardunaldi osoan eta hirugarrena erdian. Soldata baten truk ari diren langileak hiru horiek badira ere, Mitxelenak azpimarratu du kooperatibako beste kideen ekarpenik gabe zaila izanzen zela proiektua mantentzea. “Gu baratzeaz arduratzen gara, baina paper kontuak, diru-laguntzak, fakturak eta horrelakoak kooperatibako beste talde batek egiten ditu”, dio.

Burokrazia eta administrazio lan horiez gain, kooperatibako bolondresak bestelako lanak ere egiten dituzte Elikan. Esaterako, hiru nekazariak asteburuetan libratu ahal izateko, baratzeako lanetarako txandak egiten dituzte. “Azarotik apirilera, asteburuetan ez dugu lanik egiten, baina beste hilabeteetan, gutako batek jai hartu ahal izateko, asteburuero bi kooperatibista datoz lanera”, azaldu du. Bestetik, aipatzekoa da Udalaren partetik proiektuak jaso duen babesa eta laguntza ere. Izan ere, ondoko baserri bati alokatu zion



ELIKA KOOPERATIBA

Asteburutan Elika kooperatibako bi kidek lan egiten dute baratzean, baratzezainek txandaka jai egin ahal izan dezaten.

lursaila udalak, ondoren lehiaketara ateratzeko. Elikak proiektua aurkeztu zuen, eta geroztik ari da lursail horretan lanean, alokairu edo urik ordaindu beharrik gabe.

46 BARAZKI SASKI ASTERO

Garaiko barazki freskoz eta ekologikoz osatutako 46 saski egiten dituzte astero Elikako nekazariak. Lursaillean bertan egiten dute banaketa. “Asteartero prestatzen ditugu saskiak, eta erosleak hona datoz jasotzera. Horrela, badute baratzearekin lotura, ikusten dute lan nola egiten dugun...”. Saskia jaso ahal izateko ez da kooperatibista izan beharrik, nahiz eta kasuen gehiengo, 40 bat kide, horrela diren. %5eko deskontua dute horiek. Bestetik, Labore denda lursailetik oso

hurbil dagoenez, bertatik-bertara daramatzate barazkiak, han ere saltzeko.

Oiarzunen elikadura burujabetzaren bidean egiten ari diren lanaren parte da Elika kooperatiba. Hasiera zaila izan bazen ere, lortu dute proiektua egonkortzea, eta urteotako ibilbidearen balorazio oso positiboa egin dute. Areago, momentu honetan herrian dagoen eskaria asetzera ez da iristen kooperatiba, eta aurrera begira, antzeko egitasmo gehiago bultzatzea dute asmo. Horretarako, baina, nekazariak argi du zein den bidea: “Garrantzitsua da horrelako proiektuak kolektibizatzea, karga guztia nekazariaren gain utzi gabe. Proiektuek aurrera egiteko bakarrik ez sentitzea gakoa da, nire ustez”. ●

LITERATURA

BAKARDADEAREN ISPILU ETA BAKARDADERAKO SOSTENGU

"Gurpilik erabili ez duten zibilizazio garrantzitsuak existitu dira, baina ez dago istoriorik kontatu ez duen zibilizaziorik", hala dio Ursula K. Leguin autoreak. Literatura, gizakiak gizakiari gizakia izatea zer den kontatzeko tresna dela entzun diot sarri Josune Muñoz. Lerrootan bakardadea autore desberdinek nola kontatu duten aztertuko dugu batetik; eta bestetik, hutsuneak eta isiltasunak literaturarekin nola bete, esan eta akonpainatzen diren ikusiko dugu.

 AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Bakardadea jendarte modernoetako gaitz geroz eta ohikoagoa da, eta indibidualizazioa sistema kapitalista eta patriarkalaren ondorio logikoa besterik ez da. Erresuma Batuak 2018an sortu zuen Bakardadearen ministerioa, eta Japoniak 2021ean. Bakarrik sentitzen den jende kopurua kezagarria delako hartu dute erabaki hori, desiratu gabeko bakardadeak ondorio fisiko, emozional eta psikologikoak dituela frogatzen duten ikerketek alerta piztu baitute. COVID-19aren pandemiaren itxialdian isolamendu egoerak goia jo zuen: bakarrik bizi zen jendeak ezin izan zuen bi hilabetez inor ukitu; zahar etxeetan zeuden adinekoek ezin izan zuten jaso senideen bisitarik eta maitasunik; haurdunek ezin izan zuten inoren hatsa gertu eduki erditu bitartean; eta ezin izan genituen hildakoak agurtu. Adibide batzuk jartzearren.

Bestalde, bizi dugun garaia teknologiak eta digitalizazioak baldintzatzen duenez, gure arteko harremanak sare sozialek baldintzatutakoak dira. Hiperkonektatuta gaude, baina bakarrik sentitzen gara. Egun bakarrean 30 pertsonarekin egin dezakegu berba Whatsapp-ez; eta Instagram bidez jakin dezakegu gure lagun minak zer gosaldu duen edo kasik agurtzen ez dugun bizilagunak crossfit klasea izan duela. Baina lotara sartu aurretik ez dugu ia ezer oroitu eta sarri hutsune sentazio handi batek harrapatuko gaitu. Eta Youtube-ko bideoak ikusten hartuko gaitu loak.

Hainbat diziplinatako autoreak hasiak dira planteamenduak argitaratzen: *In-vulnerables e invertebrados* (Zauriezinak eta ornogabeak; Anagrama, 2022) argitaratu du Lola Lopez Mondejarrek eta *La corriente de la historia* (Historiaren korrontea; *Traficantes de sueños*, 2022) Almudena Hernandok. Horien arabera,

kapitalismo neoliberalaren, patriarkatuaren eta digitalizazioaren koktelak indibidualizazioa areagotzen du, hau eraginda: identitate erlazionalak baztertea, eta beraz, komunitatearen, taldearen zein kolektibotasunaren balioak gutxietea. Zaintzarena, esaterako.

Arrazoi askorengatik senti gaitetzke bakarrik: maite genuen norbait galdu dugulako, gure bizi proiektua eta inguruan ditugun lagunena desberdina delako, bizitzari zentzua aurkitzen ez diogulako... Bakardadearen konplexutasunak barruraino hartu nauenetan hiru estrategia erabili izan ditut nik, oso oinarritzkoak izateagatik tuntunak eman dezaketanak, baina zentzudunak ere badirenak. Lehenengo: pertsonekin fisikoki elkartzea da –lagunekin, senideekin, gimnasioko ezagunekin edo lankideekin–. Bigarrena: literatura irakurtzea, liburuek konpainia egiten baitigute eta gure barne mundua aberastu. Eta hirugarrena sormena da:

idaztea, marraztea, eskuekin lan egitea. Finean, edertasuna kontenplatzea eta mina artean transformatzea.

Estrategia horiek jasoak daude literaturan, eta bakoitzaren zenbait adibide ekarriko ditut. Lehenengo strategiaren adibidea jasotzen du *Las dos ancianas* (Adineko bi emakumeak; B de bolsillo, 2009) lanak. Vela Wallisek Amerikako jatorrizko biztanleen ahozko literaturatik jasotako liburua da. Komunitate nomada batek denboraldi luzea darama gosea pasatzen, eta liderrak erabakitzen du bi andre zaharrenak taldetik botatzea, egiten duten ekarpena txikia dela iritzita. Elikatu beharreko bi aho gutxiago izango dira horrela, eta gainera, seguru dago lehenago ala beranduago hil egingo direla. Istorioan zehar komunitaterik gabe geratzen diren bi andre zaharren mina eta amorrua ikusten baditugu ere, biziraupenerako egin behar dituzten lan guztiak hartzen dute kontakizunaren zati handiena. Salbazioak ezinezkoa dirudien arren, bi kontuk ahalbidetzen die bizirautea: zaharrak izanik pilatutako esperientzia eta jakinduriak; eta bata besteari egiten dion konpainiak.

Senarrak abandonatu ostean dolu prozesu bete-betean dagoen emakume baten egun bat kontatzen du Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox* (Erein, 1997) liburua. Ama da protagonista, eta bere barne bakarriketaren testigu gara irakurleak, hori izanik beregandik kanpo gertatzen dena baino pisu gehiago daukan aspektua. Bakarrik dago, bakarrik sentitzen da, eta tonu goibela erabiltzen du. Mariama Ba senegaldarraren *Une si longue lettre* (Hain gutun luzea; Le serpent a plumes, 2015) liburua oso desberdina izanagatik ere premisa berarekin hasten da: bere senarrak, bera baino gazteagoa den neska batengatik abandonatu du Ramatoulay, eta honek bere lagun minari idazten dion eskutitz luzeak osatzen du liburua. Mina eta tristura present daude hemen ere, eta amorrua ere bai.

Baina Urretabizkaiaren liburuan dagoen bakardade sentsazioa leunagoa da askoz. Zergatik? Behinik behin, egoera antzekoa bizi izan zuen lagunaren sos-

tengua duelako. Eta irakurri, erantzun eta ulertuko duen laguna existitzen dela jakite hutsak egoeraren pertzepzio osoa aldatzen duelako.

Bakardade sentipenari aurre egiteko aipatu dudan bigarren estrategia irakurtzea da. Batzuetan gizakiarenganako konfiantza galtzen dugu, eta fikzioa da ontasuna eta goxotasuna bilatzeko modu bakarra. Jeanette Winterson-en liburu autobiografikoa da adibide garbia: *Why Be Happy When You Could Be Normal?* (Zergatik izan zorionsua normala izan zaitezkeenean?; Hardcover, 2011). Adopzioan hartu duen familia ultrakatolikoa eta zorrotza da, amak ez du plazerarekin zerikusia duen ezer onartzen (sexua, adiskidetasuna, liburuak), ez dute maitasun keinurik berarentzat eta, beraz, bakarrik sentitzen den nerabea da Winterson. Auzoko liburutegia, liburutegia eta liburuak dira bizitza salbatuko dioten elementuak. "Liburuek ez dute etxea egiten, etxea dira bere horretan; ate batekin bezala egiten dugu: liburu bat irekitzen dugu eta sartu egiten gara. Barnean espazio eta denbora ezberdin bat dago", irakur diezaiogegu autoreari.

Hirugarren estrategia gisa aipatu dugu bakardade sentimendu hura sortu duten gertakariez idaztea. Gertakariak obra artistiko batean transformatzea, alegia. Izugarri luza ninteke hemen, baina adibide bi ekarriko ditut. Alba de Cespedesen *Quaderno Proibito* (Debekatutako koadernoak; Mondadori, 2022) eleberriak 1950eko hamarkadako Italian kokatutako istorioa jasotzen du.

Etxeko lau pareten artean emazte eta ama roletan itota sentitzen den emakumeak idatzitako egunerokoa da: nondik datorkion ez dakien bulkada bati kasu eginez erosten du koadernoak, eta bertan idazten ditu bere frustrazio eta ametsak. Horrela baretuko du bizitza horretan itxita egoteak eragiten dion estutasuna. Catherine Meurisseren *La Légèreté* (Arintasuna; Hardcover, 2016) komikiak autotreak berak bizi izan zuen egoera kontatzen du. Bikotekideak utzi ostean, gau negarrez pasa zuen eta goizean lokartu egin zen: ordubete berandu iritsi zen bere lantokia zen Charlie Hebdoko egoitzara. Irtsi zenerako atentatuak eginak zituzten, eta bere lankide guztiak hilda zeuden. Komiki honetan bizirik gelditzen denaren hasierako kulpa eta galderak aurkituko ditugu. Inork ulertu ezin duenaren bakardadea eta barne-hutsa. Bizitzara berriz konektatzeko asmoz Erromara egiten duen bidaia edertasunaren bilaketa da: arkitekturak, pinturak, eskulturak eta berdeguneek ordena emozionala berrezartzen laguntzen diote. Artea kontenplatzeak bere sormena estimulatu du, eta terapeutaren gomendioz bizi izandakoaren istorioa kontatzen du hainbat teknika erabiltzen dituen komiki zoragarrian.

Bakardadea emozio konplexua da, bereziki hautatua ez denean. Gehienetan beste sentimendu batzuk lagunduta etortzen baita: lotsa, kulpa, tristura, amorrua edo nahasmena, besteak beste. Liburu batean pertsonaia gogoangarri asko egon daiteke, bakarrik gaudenean konpainia egiteko prest. ●



'NOSFERATU' FILMAK 100 URTE

Bertze munduko haize hormatua

Beldurra edo zientzia fikzioa ez dira nahitaez zinema *serioa* maite dutenen genero gogokoenak izaten, baina, George Mélièsengandik hasita, zinema fantastikoaren etiketapean sailkatzeak diren film zinez ederrak aurkitzen ditugu zinemaren hasmentari lotuak. Segur aski, zinemaren lehen pausoen eta genero fantastikoaren harremana inon ez da 1920ko hamarkadako zinematografia alemanean bezain estua izan. *Nosferatu* film mutua (1922) dugu uzta oparo horren erakusgarri.

 SANTI LEONÉ

Zinemazale amorratua izan gabe ere, edozein ikuslek aise osatzen ahalko luke Weimarreko errepublika garaiko film zentzu guzietan fantastikoen zerrenda ttiki bat: Robert Wiene-ren *Das Cabinet des Dr. Caligari* (Caligari doktoarearen kabinetea, 1920), Paul Wegener eta Carl Boese-ren *Der Golem, wie er in die Welt kam* (Golema nola sortu zen, 1920), Paul Leni-ren *Das Wachsfigurenkabinett* (Argizarizko figuren kabinetea, 1924), Fritz Lang-en *Metropolis* (1927) edo *Frau im Mond* (Emaztekoa ilargian, 1929)... Eta, jakina, Friedrich Wilhelm Murnau-ren *Nosferatu*.

Werner Herzogen ustez –zeinak 1979an filmari omenaldia ere baden *remakea* egin baitzuen–, *Nosferatu* inoizko film aleman handiena da; Lotte Eisner zinema kritikaria haraxeago joan eta alemanek izan duten film zuzendaririk handiena deitu zion Murnauri. Bigarren

horrek, Eisnerrek alegia, *Die dämonische Leinwand* (Deabruzko pantaila) liburuan gogorarazten digu *Nosferaturen* azpiztitulua *Eine Symphonie des Grauens* dela, izuaren sinfonia bat alegia: “Eta gaur ere oraindik benetan sentitzen dugu, filma ikusten dugularik, bertze munduko haize hormatua dabilela irudi errealistetan”. Berlindarrek 1922ko martxoaren 4an izan zuten oraindik ere hotzikarak sortzen dituen haize hormatu hura lehendabiziko aldiz sentitzeko aukera.

MAITASUNAREN INGURUKO DRAMAK

1888an sortua, Friedrich Wilhelm Plumpe zuen egiazko izena; deitura Murnauri aldatu zuen Bavarian ezagutu zuen eta artisten kolonia gisa funtzionatzen zuen herriaren omenez –eta, agian, izena aitarenetik bereizteko asmoz, antza hark ez baitzuen gustuko semeak

harturiko bide artistikoa–. Murnauk 21 film egin zituen, hamazazpi Alemanian, 1919tik 1926ra bitarte, eta lau Ameriketako Estatu Batuetan, Hollywooodera joan zenetik auto istripu batean hil zen artio, 1931n. Film horietarik guzietarik hamabi ailegatu dira gureganaino; etapa alemaneko zortzi eta AEBetako bat galdu dira.

Gaur egun, segur aski *Nosferatu* da Murnauren filmetan ezagunena. Ez da beti horrela izan. Denbora luzean, zinemazaleendako bertze batzuk ziren haren film erakargarrienak, hala nola *Der letzte Mann* (Azken gizona, 1924), kamera mugikorraren erabilera delata, edo Amerikan egin zituen *Sunrise* (Egusentia, 1927) edo *Tabu* (1931). Gaur, berriz, *Nosferatu* da naski gure zuzendariaren film ezagunena. Hala ere, hemen mintzagai dugunaz gainera beldurrezko bertze bi film egin zituen arren –biak 1920koak eta biak galduak: *Satanas* eta *Der Janus-Kopf* (Janoren burua)–, izua ez zen Murnau landu zuen genero nagusia. Bere filmetan maitasunaren inguruko dramak ikusten ditugu maiz, eta *Nosferatun* ere erran liteke amodiozko hiruki bat dugula Orlok kondearen eta Hutter eta Ellen senar-emazteen artean.

Filmak ez dira inoiz lagun bakar baten lana izaten, eta *Nosferatuz* ari garelarik, Murnaurekin batera, gutienez bertze izen bat aipatzea ezinbertzekoa da: Albin Grau. Okultismo kontuetan aditua, Enrico Dieckmanekin batera Prana Film ekoiztetxea sortu zuen *Nosferatu* egiteko. 1921eko artikulu batean konstatu zuen Grauk nola bururatu zitzaion filmerako ideia: 1916ko neguan, Serbian zebilerarik, Errumanian bizi izandako

nekazari batek kontatu zion bere aitaren istorioa, zeina, hil ondotik, gauez hilotik ateratzen baitzen herriko jendearen odolaren bila. “Ez-hildako bat ikusi nuen’. ‘Ez-hildako bat?’, galdegin zuen gutariko batek. ‘Bai, ez-hildako bat edo Nosferatu bat, banpiroei hala deitzen baitiete han”.

Istorio segur aski apokrifo hori azal dutakoan, artikulu berean Grauk kontatzen du geroago, Pragan, lagun bati gaztigatu ziola gaiaz film bat egitekoan zeudela, eta Murnau hartua zutela hura zuzentzeko. “*Nosferatu* esku onetan dago, beraz”, erantzun omen zion lagunak. Ekoizle lanak egin ez ezik, Albin Grauk zuzendari artistikoaren funtzioa ere bete zuen, eta filmaren propaganda-rako erabili zituzten –eta hain ezagunak diren– marrazkiak berari zor dizkiogu.

Eztabaidatua izan da *Nosferatu* espresionismoaren barnean sailkatzekoa ote den, batez ere Murnauk pasarte frankotan toki errealetan filmatu zuelako, orduan ohikoa zen bezala estudioetan eraikitako dekoratuetan filmatu beharrean –adibidez, Orlok kondearen gaztelukoak Eslovakian filmatu zituzten,

Universalek 1930eko hamarkadan egin zituen beldurrezko filmak ederrak dira, baina, bistan dena, gaur ez dute beldurrik ematen. ‘Nosferatu’, berriz, zenbait unetan asaldagarria da oraindik

Tatra mendietan-. Baina bistan da argiaren eta itzalen erabilera, filmaren une gogoangarrietarik eman diguna, aski espresionista dela. Eta, bertze filmetan bezala, honetan ere hainbat iruditan nabaria da Murnauk pintura erromantikoa alemanari zion atxikimendua.

ORLOK VS DRAKULA, FLORENCE BALCOMBE VS NOSFERATU

Murnauen filma Bram Stokerren *Dracula* nobelan dago oinarritua, baina konde misteriotsu bati etxe bat saltzeko asmoz Transilvania aldera abiatzen denak ez du Jonathan Harker izena, Hutter baizik; eta haren emaztea ez da Mina Harker, Ellen du izena; azkenik, gaztelu inguruko nekazarien izu irrazionala pizten duen kondea ez da Drakula kondea, Orlok kondea da. Galdutako *Der Janus-Kopf* filmean, Robert Louis Stevensonen *Dr. Jekyll and Mr Hyde* nobela egokitu zuen Murnauk, orduan ere egile-eskubiderik ordaindu gabe. *Nosferaturi* dagokionez, irakurleak hartzen duen liburuaren arabera, bada erraten duena izenak aldatzea dirurik ez ordaintzeko estrategia bat izan zela, baina bada defendatzen duena eskarmentu falta izan zela Albin Grau eta Enrico Dieckmann ekoizleen bekatu nagusia.

Eskubideak ordaindu, nori baina? Bram Stoker 1912an hila zen, eta beharbada Internet aitzineko garai hartan ez zen hain erraza bilatzea nor zen egile-eskubideen jabe. Internet izan ala ez, Sto-

Hain da sinesgarria Max Schrecken antzezteak, ezen izan baitzen egiazko banpiroa ote zen erran zuena.



kerren alargunak, Florence Balcombek bai izan zuen 1922ko estreinaldiaren berri, eta prozesu judizial luzea martxan paratu zuen, senarra zenaren obra egokitzeagatik zor zioten dirua ordaindu ziezaioten. Hiru urteren buruan, sosik ez zuen ekoiztetxe hartatik deus eskuratuko ez zuela etsita, filmaren ale eta negatibo guziak suntsitzeko agindua lortu zuen Balcombek. Batzuk salbatu ziren, zorionez. Eta filmaren fotograma batek apaintzen du Oxford World's Classics bildumako nobelaren edizioaren azala. Hemendik aditzen dugu Florence bueltaka bere hilobian.

Nosferatu hitza Bram Stokerren eleberrian agertzen zaigu, XVI. kapituluaren hain zuzen ere (eta, arestian aipatu edizioan, 200. orrialdean): "hil zenuelarik, nosferatu bihurtu zinen, Ekialdeko Europan erraten duten bezala". Bram Stokerrek Emily Gerard idazlearen 1885eko *Transylvanian Superstitions* (Transilvaniako sineskeriak) lanean aurkitu zuen naski. Gerarden arabera, nosferatu banpiro solasaren ordaina da errumanieraz, baina, antza, ez da horrela. Errumanieran ez omen da nosferatu hitzik existitzen, ezta bertze edozein hizkuntzatan ere. David J. Skal ikertzaileak



Albin Grau-ren marrazkia. Okultismo kontuetan aditua, Prana Film ekoiztetxea sortu zuen 'Nosferatu' egiteko.

proposatzen du Gerardek gaizki interpretatu zuela errumanierazko bertze hitzen bat, hala nola *nesuferit* –jasanezina–, baina bada nosferaturen jatorri gisa grezierazko *nosophoros* –izurritea daramana– edo errumanierazko *necuratul* –deabrua, edo izaki nazkagarria– proposatzen duena. Hori nolana ere, film baten izenburu bihurtua, Murnauri esker hitz berri bat irabazi dugu.

NOSFERATUREN ITZAL LUZEA

Nik ere maite ditut Univesalek 30eko hamarkadan egin zituen beldurrezko filmak. Film ederrak dira, xarmagarriak, baina, bistan dena, gaur ez dute beldurrik ematen. *Nosferatu*, berriz, zenbait unetan asaldagarria da oraindik, estreinatu zenetik ehun urte baino gehixeago pasatu diren arren. Max Schreck aktoreak gorpuztu zuen banpiroa berezia da arrunt, eta haren mugimenduek, makillajeak eta Fritz Arno Wagnerren argazkiak lagunduta, hasmentan aipaturiko haize hormatua sentiarazten digute gaur egun ere. Izan ere, hain da sinesgarria Max Schrecken antzeztea, ezen izan baitzen egiazko banpiroa ote zen erran zuena. Kondaira horretarik abiatuta, *Shadow of the Vampire* (Banpiroaren itzala) filmatu zuen E. Elias Merhigek 2000. urtean. Izarrez beteriko pelikula horretan –John Malkovich da F. W. Murnau; Udo

Kier, Albin Grau; eta Willem Dafoe, Max Schreck– zinemaren izaera banpirikoaz egin zuen gogoeta egileak.

*Nosferatuko*a banpiro berezia da bere izugarrikerian eta itsuskerian, Tom Cruise, Brad Pitt eta abarren elkarrizketatik pasatuz *The Twilight* (Ilunabar) sagaraino daraman bidetik aski urrun. Haren irudia Tob Hooperren *Salem's Lot* mini telesaillean aurkitzen dugu –eta handik, Guillermo del Tororen *The Strain* (Anduia) telesaileraino ailegatzten da ez-hildakoaren eragina–, eta argi dago Taika Waititik zuzendutako *What We Do in the Shadows* (Itzaletan egiten duguna, 2014) filmeko Petyr banpiro zaharra Orlok kondeari egindako omenaldia dela.

Hasmentan erran dugu: *Nosferatu* Alemaniako filmik handiena da Werner Herzogen iritziz. Zuzendari alemanak bere remakea edo bertsioa egin zuen 1979an, Bruno Ganz, Isabelle Adjani eta Klaus Kinskiarekin. Geroago, Kinski bertze behin animatu zen gure banpiroa gorpuztera, 1988an hain zuzen ere, Augusto Caminitok zuzenduriko *Nosferatu a Venezia* pelikulan. Baten batek erranen lukeen bezala, ze nezesidade?

Jean-Luc Godardek errana da film bat egiteko behar dituzun gauza bakarrak neska bat eta pistola bat direla. *Nosferatu* ikusita, argia eta itzalak dira naski behar diren gauza bakarrak. ●

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Lehen arkitekturari ez ikusiarena egin zioten

Borniquel (Okzitania), duela 176.000 urte. Kobazulo batean, 336 metro sakon, neandertalek eraztun formako egitura bikoitza egin zuten estalagmitak baliatuz. Milaka urte horietan guztietan egitura ezkutuan egon zen, 1990ean aurkitu zuten arte. Eta, ondoren, beste 24 urtez, komunitate zientifikoak ez ikusiarena egin zuten.

1987an, Bruno Kowalczewski izeneko espeleologia zale nerabeak kobazulo handi bateko sarrera izan zitekeena aurkitu zuen. Hiru urtez, oporrak eta asteburuak aprobetxatuz, pixkanaka galeria hustuz joan zen, 30 metrora iritsi arte. Eta 1990eko hasierako egun batez hutsunea bat-batean zabaldu zen. Espeleologo bat lagun, biharamunean, 300 bat metro egin zituzten aurrera, estalagmitazko egitura arraroarekin topo egin arte. Hurrengo egunean François Rouzaud arkeologoarekin joan ziren eta hark hartu zuen egitura aztertzekeo ardurar: moztutako 400dik gora estalagmita bi zirkulu zentrukide osatuz, sua piztutako hainbat puntu... eta erretako hezur zati bat! Karbono 14a erabiliz datatu zuen eta, emaitzaren arabera, gutxienez 47.000 urte zituen –C14a ez da fidagarria hori baino data zaharragoetan-. Egitura ez hondatzeko, indusketarik ez egitea erabaki zuen. Baina aurkitutako guztia dokumentatu, ikertu eta argitara eman zuen. Eta inork ez zion jaramonik egin. Eta Rouzaud handik gutxira hil zen beste kobazulo bat esploratzen ari zela.

Datazio haren arabera, neandertalen lana izan behar zuen, baina neanderta-



LUC-HENRI PAGE/SSAC

lak ez ziren halako sakoneratan aritzen, ez zuten sua hainbeste kontrolatzen eta gizaki modernoak egindako lehen artefaktuak, labar pinturak, askoz berriagoak ziren (Ekaingo pinturak 14.500 urte inguru dituzte eta Santimamiñekoek, aldiz, 13.000).

2014an, Sophie Verheyden geologo belgikarrak udako oporrak inguru haietan eman zituen eta kobazuloa bisitatzea erabaki zuen. Estalagmiten kaltzitaren uranio-torioaren bidezko datazioa egin zitekeela bururatu zitzaion. Jacques Jaubert buru zuen arkeologo

taldeak ekin zion lanari, eta Verheydenek aholkatutako metodoak emaitza guztiz fidagarria, eta harrigarria, eman zuen: 176.000 urte. Eta aurkikuntzaren berri, oraingoan bai, *Nature* aldizkarian argitaratu zuten.

Neandertalgo gizakiak, gizaki modernoak Afrikatik Europara joan baino askoz lehenago, 2,2 tona estalagmita maneiatzeko gai izan ziren, estalagmitak 32 zentimetroko patroi zehatzetan mozteko, aretoa 18 surekin argiztatzeke. Finean, neandertalek lehen arkitektura lana sortu zuten. ●



XINJIANG INSTITUTE OF ARCHAEOLOGY

3.500 urteko patin txinatarrak

Txinako Sinkiang eskualdean, Brontze Aroko Gaotai aztarnategiko hilobi batean, izotzetan irrist egiteko patin moduko batzuk aurkitu dituzte. Idi eta zaldi hezurrez eginak daude, zuloak dituzte oinetakoei lotu ahal izateko eta 3.500 urte dituzte, da-

tazioaren arabera. Hala ere, ez dira orain arte aurkitutako irristailu zaharrenak; Finlandian duela 5.000 urteko patinak aurkitu zituzten, eta Txinakoak 1.500 urte geroago handik milaka kilometrora egin zituzten arren, oso antzekoak dira. ●



LIBURUA

Osatu



TOKIKOM

POESIA BIZITZEKO ETA SENTITZEKO MODUA DA

KARMELE IGARTUA

PAMIELA, 2022

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Pamielak 2022an argitaratu duen liburuak Igartuaren hiru poema-liburu barnebiltzen ditu (*Hitzak orbainetan*, *Denbora enaren hegaletan* eta *Itsaso kontra bat*). Tere Irastorzaren sarrerak emango digu bidaiara honetara ongi etorria, eta Karmele Igartuaren sentsibilitate eta begiradaren nondik norakoak kokatuko dizkigu bere bizitzako elementu garrantzitsuen zertzelada batzuk ematearekin batera. Poema liburu bakoitzaren jatorrizko portadak irekitzen du atal bakoitza autorearen ibilbide literarioaren omenaldi gisa.

Denbora luzez mesanotxean edukitzeko liburu da. Poema bat irakurtzeak beste batekin jarraitzeko gogoia pizten badu ere, badaude irakurri eta dastatu, miatzatu, tragatu eta digeritu behar diren piezak ere: sakonak, iradokitzaileak eta gorputzean erreberberazio moduko bat sortzen dutenak. Tarte batez berruan geratzen diren horietakoak.

Liburuaren izenburuak esaten duen moduan bizitzeko eta sentitzeko idatzi ziren poemak, eta bizitzeko eta sentitzeko asmoarekin irakurtzen dira. Gai unibertsalez idazten du autoreak: bizitzaz, heriotzaz, bakardadeaz, denboraren joanaz, askatasun nahiaz... Baina modu partikular eta estilo zuzenean idazten ditu. Unibertso propio bat du autoreak, gauzak esateko modu originala eta hitz-jolas errazetatik urrun proposamen landu eta bereziak egiteko gaitasuna duena. Poemaren formekin jolas egiten du, itxura eta bistara ere efektu bat bilatuz.

Itsaso kontra bat liburuaren istorioa bereziki hunkigarria da. Izan ere, autoreak bizi izan zuen gaixotasunak hil ostean argitaratu zen. Argazkiak eta eskuizkribuak ikus ditzakegu eta idazketaren prozesuan bizitzak duen eragina agertze aldera poemetan egin zituen aldaketak nabarmentzen dira. Gaixotasunaz, heriotzaz, minaz, ospitaleaz hitz

egiten du hemen. Baina sortzen dituen irudietan edertasuna aurkituko dugu egiten dituen galderen erantzunik topatuko ez dugun bezala. Atal honetan poema bakoitzetik hitz bat aukeratu eta definizio poetiko bat egiten dio; erritmoa aldatzen du, atentzioa irekitzen du eta hitz arruntei dimentsio zabalagoa ematen die.

Esperantzak eta disdirak inguratzen du, hala ere, liburuaren tonua. Heriotzaz hitz egiten duenean ere bizitzaz ari dela irudituko zaio irakurleari eta bizitzari ere abesten dio zuzenki: *Bizia dator senean / gogoan / sabel barrene-tan, / taupada bat da/ taupada laguna behar duena.*

Izugarri gustatu zait hiru liburuak batean jasota izatea. Mesanotxean daukat oraindik liburuak. Hautsa hartzen barik neguari tristura eta grisa kentzeko pilula gisa gauero behar dudana dosia hartzen jarraitzeko prest. ●



MUSIKA

Gogoratuko ez den 'Tosca' bat



MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Tosca obraren aldeko apustua egitea opera denboraldi bat aurrera eramateko, zalantzarik gabe, ziurtatutako arrakastaren alde egitea da, eta ez dago sarrearik kartela bermatzea.

Hori, jakina, oso ondo dago. Baina lan oso ezagunak programatzeak (batez ere haien bertsio bikainak buruan ditugunean) arrisku bat dakar: eskaintzen den bertsioak ere bikaina izan behar du, iraganeko bertsioetatik aldentzen ez dena, gutxienez kalitateari dagokionez. Gogoeta horiekin eta itxaropenik onenarekin joan ginen OLBEk eskaini zuen *Tosca* Massimo di Palermo Antzokiaren ekoizpen hau ikustera.

Musikari heldu aurretik, azpimarratu behar dut eszenografia zoragarria izan zela, oso errealista, eta elementu aberatsekin birsortu zirela antzetzu nahi zituen erromatar agertokiak. Beraz, zo-

rionak Francesco Zito eszenografoari eszenaratze klasiko eta iradokitzaile honengatik.

Baina, agian, musikaren aldetik gauzak ez dira hain argiak.

Zalantzarik gabe, Pedro Halffterren zuzendaritza dotoreak emaitza orokor zeremoniatsua eta diskurtso musikal elegantea sortzen lagundu zuen. Baina uste dut, benetan, bakarlariak agian ez zirela egon espero zen mailan. Halffterren *tempi* mantsoek ez zuten lagundu, segur aski, kantariak behar bezala kantuan "ainguratzen", nolabait esateagatik. Baina desegokitasuna egon zen bakarlarien rolekiko, eta, oro har, ez genuen entzun eszenatokitik maiteminduko gintuzten ahotsik. Hori aitortu behar da.

Oksana Dyka soprano ukrainarrak tinbre aldakorra erakutsi zuen, ez bere-

FITXA

OLBEk antolatutako Pucciniren *Tosca* opera. Bilbao Orkestra Sinfonikoa. **Zuzendaria:** Pedro Halffter. **Eszena zuzendaria:** Mario Pontiggia. **Eszenografia:** Francesco Zito. Bilboko Operaren Abesbatza. **Zuzendaria:** Boris Dujin. Leioa Kantika Korala. **Zuzendaria:** Basilio Astulez. **Bakarlariak:** Oksana Dyka (sopranoa), Roberto Aronica (tenorea), Gabriele Viviani (baritonoa), Fernando Latorre (baritonoa), Alejandro López (baxua), Moisés Marín (tenorea), José Manuel Díaz (baritonoa), Gexan Etxabe (baritonoa) eta Helena Orcoyen (sopranoa).

ziki ederra. Ez zuen luzitu entzun nahiko genukeen *Floria Tosca* distiratsua bezala. Roberto Aronica tenore italiarrari dagokionez, ez zuen nahikoa eman Mario Cavaradossi interpretatzeko, pertsonaia horrek eskatzen duen dotorezia eta ausardia dosiarekin. Une zailak izan zituen, *Recondita armonia* arian bezala, nahiz eta *E lucevan le stelle* oso ospetsuan ondo konpondu zen. Hala ere, jarduera globala zertxobait justua izan zen.

Gabriele Viviani baritonoa izan zen agian emanaldi distiratsuen eta birribilena izan zuena, Scarpiaren papearean, bere ahots ilun eta sendoarekin eta besteak baino interpretazio sinisgarriago batekin. Gainerako abeslariak zuten eta egoki jardun zuten.

Azken batean, *Tosca*-rekin gozatu genuen, beti bezala, baina dextente gehiago espero genuen ekoizpen honetatik. ●



Interpelatutak

✍ IÑIGO SATRUSTEGI 📷 JOSETXO PEREZ

Pentsatzen dut nahiko "nekatutak" helduko zela Iruñera Antton Telleria birako azken aurreko emandira. Indar pixka bat bazuen gordea, ordea, hurrengo egunerako zuen zita bikoitzaren aurretik, Iruñeko Antzerki Eskolara bertaratutakoak eta beste egurtzeko.

Sartu eta aretoa lepo, zerbezak eskuan eta mahaietako lanparatxoaren argipean. Akaso, azken-azken emanaldietarako sarrerarik gabe geratutako (*giputxi*) asko hiri buruzagira etorri ziren. Antton sartu aurretik Jaurlaritzaren izenean ohar bat: *Herri honen motorra irria da. Eta ekonomia ere bai*. Honek grazia handirik ez Iruñean. Baina taularatu orduko, ezer gutxi esan/egin behar izan zuen ikusleak leherrazteko.

Whatsappeko taldeez eta horietatik ateratzeko zailtasunez, psikologoaren aholkuez, Ertzaintzaren marketing estrategiarik ezaz eta irakasleez aritu zen ordu bete luzez. Tira, jada ez dizuet spoilerrik egingo. Lizentzia hartuko dut, beraz, bi urte hauetan Telleriaren *standup*-a ikusi ez dutenentzat zer galdu duten laburtzeko.

ETAren balizko itzulera batean Whatsappeko taldekideekin elkarrizketa; ETB1-eko errepikapenak; literaturaren eta masturbazioaren arteko lotura (*bietan botatzen duzu barrukoa paperean*); "Eskerrik" esaten duen jendeak sortzen dion amorrua...

Hainbat puntu atera nituen ondorio gisara: ni ez naizela ez Mirri, ez Mikel Urdangarin; literalki ohe azpian zegoena ni nintzela; eta batez ere, inter-

NEKATUTAK

NORK: Antton Telleria

EGUNA: Martxoak 3

LEKUA: Nafarroako Antzerki Eskola (Iruñea).

pelatuta sentitu nintzela nire jardun bakazionalarekin (eta justuak izateko, areto erdia baino gehiago ere bai). Nekatutak 57, ertzainak 0, irakasleak 2.343.863.

Formatuaren inguruan ere izan nuen zer pentsatu. Izan ere, bitxia egiten zait naturaltasun faltsua. Esan nahi dut, gidoi bat dago baina bat-batekoan ariko balitz bezala aurkezten da. Eta hala ere, leku horretatik txisteak kateatzeko, herriz herri aritzeko eta publikoa bereganatzeko gaitasuna txalotzeko modukoa dela uste dut.

Laburbilduz, uste dut umore beltza egiteko moduaren demostrazio bat egin zuela. Eta ona. Eta gainera, norbait nahiko balu, Antton berotzeko formula magikoa ere badugu: partizipioak gaizki "jokatutak". ●

Maitane Azpiroz

'LA TRAPEZIONISTA'



BETI BILATZEN

"Nire indargunea gizatasunaren inguruan daukadan sentsibilitatea da; hau da, nola sentitzen dudana, zer-nolako harremanak sortzen ditugun, nondik sortzen ditugun, adierazgarritasuna, emozionalitatea... Edertasuna eta mugimendua adierazteko bilaketa konstante batean nabil. Non dago edertasuna? Zer da? Edota nola transmititu daiteke? Edertasuna aipatzen dudanean ez naiz ari ohiko kanonetan oinarritutako edertasunaz, baizik eta sentsibilitateen kontrastez".

"Oso zaila da hain pertsonala den zerbait beste norbaitek gorpuztea"

Zirkuan eta dantzan trebatu da Maitane Azpiroz *La Trapecionista* dantzaria eta trapezista (Iruñea, 1982). Zamaren ideiatik tiraka *Artxipielago* obra sortzen ari zelarik, haurdun geratu eta beste kide bati pasa behar izan zion lekukoa. Orain ez du antzezlanean antzezten, baina zuzendu egiten du. Nafarroako hainbat herritan taularatuko du lan berria: apirilaren 23an Lodosan; ekainaren 2an eta 4an Zizur Nagusian; eta urriaren 15ean Agoitzen.

 OLAIA L. GARAIALDE

Txiki-txikitatik egiten duzu dantza, baina gerora murgildu zinen zirkuan. Nola oroitzen duzu?

Donostian filosofia ikasten nuen erantzunak bilatzen nituen, baina nire galderak ez zirenez amaitzen, ez zirenez beharrak asetzen, ikasketen bigarren urtean Bartzelonara joan nintzen nire jakin mina asetzera. Dantza eskola batean nengoan, baina instituzionaleria eta zurrunezia zen niretzat, eta ikusi nuen ez zela momentua.

Zirkua ezberdina da. Hurbilagoa da eta solidarioagoa. Lagun batekin topo egin nuen eta esan zidan zirku tailer bat egin behar zutela Iruñeko Arrosadian, Mira Antzokian. Ikastaroaren ostean bihozkada eder bat sentitu nuen eta ordutik egiten dut zirkua. Garai horretan hasi nintzen ere dantza garaiakidea egiten.

Zergatik aukeratu zenuen trapezioa?

Lurreko akrobata izan nahi nuen, baina ohartu nintzen gorputza atzera botatzeak beldurra ematen zidala, eta ikusi nuen trapezioak beldurra baretzen zidala. Gainera, altuera asko gustatzen zitzaidan. Bi gauzek bat egiten dute.

Artxipielago ikuskizuna daukazu esku artean. Nolako izan da sortze prozesua?

Materiarekin, arearekin eta gorpuztaren memoriarekin ikertzen hasi nintzen Gunea sorkuntza espazioan. Leku batetik bestera hondarra eraman behar da, zama moduan. Finean, nire barnean, horiek denak behar ez diren zamak dira, proiektu ezin eginak, maitasun harreman ezinezkoak... bizitzan pasatako gauza guztien zama. Eta nola toki batetik bestera daramagun, baina ezin dugun askatu. Erroa hori izan zen, baina gerora aldatuz joan da.



"Izaeraren parte garrantzitsu bat utziz gero triste jartzen zara eta haurdunaldirako oso arriskutsua da".



KIKO ORTEGA

Haurdun geratu zinenean aldatu behar izan zenuen proiektua; orain Teresa Magallón Cortesek antzezten du. Nola eragin dio horrek obrari?

Erabakia hartu behar nuen. Nire rola berari pasatu nion, baina oso afera zaila da: gorputzarekiko sentsibiltatea eta elementu ororekin harremana oso hausnarketa pertsonala da. Orduan ikusi nuen beste ikuspegi batera eraman beharra nuela. Horrez gain, niretzat kalitate fisikoa oso garrantzitsua zen.

Zer esan nahi duzu kalitate fisikoa aipatzen duzunean?

Gorputzaren dentsitatea, nola mugitzen den, zein den motorra eta nola sentitzen duzun zuk kanpoko objektu edo elementu baten eragina... Hau da, nola erreakzionatzen duen gorputzak elementu horren edo estimulu horien aurrean.

Nolakoa izan zen erabakia hartzea?

Uste dut erabaki ona hartu nuela. Prozesuan emozio asko sentitu ditut; hasieran ongi, pozik, baina beldurrarekin ere bai, hain pertsonala den zerbait beste batek gorputzea oso zaila delako. Erronka gogorra izan da. Gainera, beste sen-

tsibiltate bat duen pertsona batek gorputzeak beste gauza bat eskaintzen dio.

Berriz lekukoa zuk hartzeko asmoa daukazu?

Ez dakit. Hasieran berriz nik egitea zen asmoa, baina agian beste gauza bat sortzen dut. Hala ere, sasoiaren egoteko denbora behar da, eta oraindik ez nago lehen bezala.

Zirkuak zein amatasunak dedikazioa eskatzen dute. Nola daramazu kontziliazioa?

Biak zorrotzak direnez hasieran oso zaila zen dena, oso zaila delako frustrazioa kudeatzea. Entrenatzera joan nahi duzu, edo gustuko dituzun beste gauzak egin, baina konturatzen zara ezin duzula oso mugatuta zaudelako. Uste dut garrantzitsua dela laguntza sare bat izatea, hasieran batez ere. Gehienetan ama garenok erreferentziatzeko pertsona izaten gara gure haurrarentzat; ni momentu batzuetan bakarrik sentitu naiz.

Behin haurdun egonda, noiz utzi zenion entrenatzeari?

Azken hilabeteraino dantzatu nuen, eta trapezioa, oihalak eta eskalada bost hila-

bete inguru neramatzanean utzi nituen. Gogoan dut eskalatzen ari nintzela eta ezin nuela bidea egin sabelaren pisua-rengatik; orduan erabaki nuen ez zeukala zentzurik ez banuen disfrutatuko.

Epaitua izan zara?

Haurdunaldian mundu guztiak esaten zidan afizioa uzteko. Oso gaizki iruditzen zait jendeak hori egitea. Pertsona bati bizikletan ibiltzea gustatzen bazaio, zergatik ez du egingo? Bere gorputza ohituta dago. Utziz gero amaren nortasuna arriskuan egon daiteke. Izaeraren parte garrantzitsu bat utziz gero triste jartzen zara eta haurdunaldirako oso arriskutsua da. Badakit zer egin dezakedan nire bizitza arriskuan jarri gabe, ez didazu zuk esan behar.

Hortaz, haurdun dauden pertsonak ezgaitzeko joera dago?

Egongo dira amak egon nahi dutenak lasai deskantsatu, eta beste batzuk nahiagoko dute afizioekin jarraitu, hau da, bizitza normala egiten, betiere jakinda zeintzuk diren mugak. Aukerak dira, amatasuna hautatzen den bezala. Oso polita izan daiteke esperientzia, baina oso itxusia ere bai menpekota delako, eta naturaltasunez hitz egin behar dugu. ●

49.3

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Emmanuel Macronek tatuajearen teoria aplikatzea erabaki du erretreten erreforma onartzeko, nik uste. Badakizue nola funtzionatzen duen, nerabeen arteko aholkugintzaren klasikoetako bat da: “Egin ezazu tatuaje hori, gurasoak da goeneko haserre dauzkazu eta ezerk ezin du egoera gehiago okertu”. Teoria hori artefaktu izugarri hipotetikoa da noski, eta praxira eramatean eskuetan lehertzeko aukerak ez dira gutxi. Bestela galdetu beso-zuztarrean alderik alde “joder, txori bat” urre-koloreko letretan tatuatuta etxeratu zen gazte horri, ea lehen baino okerrago sentitu ote zen bere aitak –gauza hauetarako baitaude aitak–, Scotch-Britearekin destatuatu nahi izan zuenean. Hemendik entzuten nituen garrasiak.

Ba, antzeko parezido erretreten erreformarekin, tatuajearen ordez Frantziako Estatuaren historiako lege-proiekturik deitoratuenetako bat jarritz; eta gurasoen ordez, belarrietatik kea darion populua. Analogia honetan nerabea bere horretan utzi dezakegu, izan ere, nire iritzia jakin nahi baduzue, Emmanuel Macron, 45 urte, “fase bat” pasatzen ari da oraindik.

Fase bat: “Hitz egin dezatela nitaz, gaizki-esaka aritzeko bada ere”. Beharbada, influencerren omnipresentziak markatutako garai honetan tronuan egotea tokatu zaien munduko agintarientzat, Frantziako txandrioa bezalakoak dira eduki biral bat igotzearen baliokide politikoak. Eta Macron kaleko istiluen irudiekin plazer morbosoren bat hartzen ariko da, azken asteetan gehiago ari direlako berari buruz hizketan Vladimir Vladimirovitx Putini edo Joseph Robinette Biden Juniorri buruz baino –barreak txorrotaka ateratzen zaizkit AEBetako presidentearen izen osoa idazten dudanean, barka–.



Erretreten erreformaren aurkako protestan parte hartu duen emakume honen afixak honakoa dio: “Pétain, itzuli: zure txakurrak ahaztu dituzu”.

Kontua da batzuek ez diotela Macroni broma ulertu. Bueno, ia inork ez. Hain da baldarra, izan ere, legea horrela pasaraztea, kasik pentsatzen hasiko naizela Jean-Luc Méléchonek arrazoia daukala, iradoki duenean –pixka bat konspi jarrita–, nahita ari dela Manu Militari Macron zakarkerian, erreakzio bortitz bat probokatzeko: desordena, anabasa, biolentzia, bordelizazio orokorra. Horrelako erantzun batek errepublikako herritar eredugarriengan probokatu dezakeen ikara probestu nahi duela, “ni ala kaosa!” esanez aulkari eusteko –jendeak “Kaosa! Kaosa!” eskatuko balu ere, edukiko luke erantzuna, gainera: “Ba berdin da, hori ere ni bainaiz”–.

Hala ere, badago kontu kabroi bat honetan guztian, aipatu gabe utzi nahi ez dudana. Alegia, zerk pizten digun animoa, zergatik ateratzen garen ka-

lera zeozer aldarrikatzen garaioan. Zergatik, su eta ke guztiak gorabehera, geroz eta gutxiago eskatzen ari garen: 68ko maiatzean politika eta gizarte osoa ipurdiz gora jartzea zen kontua; 30 urte geroago, konbikzio xumeagoarekin, “bestelako mundua posible da” esaten genuen; oraindik orain, Jaka Horiarekin, erregaian prezioa eta demokrazia zuzena ziren gaiak; 2023an berriz, erretretaren adina ez atzeratzea. Bihar, 49.3 artikulua hain lasai erabili dutela ikusita, akaso kalera atera beharko da eskatzeko erabakiak demokratikoki har daitezela, botoak kontuan hartuz eta horrelako gauzak.

Eta helburu handia irudituko zaigu gainera. Handia iruditzen zaiguna geroz eta txikiagoa delako. Bitartean, alderantzizko proportzioan hazten ari da bizitzaren zentimetro bakoitza estutzen digun piztia. ●



Prezioa **32,00 €**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**



BERTAKO -rekin, BAI!

Euskara da gure territorio
libre bakarra

bertako

igogailuak | ascensores

ARABA 945 712 822 **NAFARROA** 848 870 917

GIPUZKOA 943 903 450 **BIZKAIA** 946 523 935

WWW.BERTAKO.EUS